



**Teodoro Hernandorena**

**IX. Ipuin Lehiaketa**

Zizurkil, 2011



© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: SS -323-2011

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza, komunikazio grafikoa

### A maila

|            |                                                  |    |
|------------|--------------------------------------------------|----|
| 1go Saria: | <b>Martiano majikoa</b><br>Alain Jimenez         | 7  |
| 2. Saria:  | <b>Pedroren amets misterioa</b><br>Maddi Galarza | 9  |
| Aipamena   | <b>Itsasoko ur epeletan</b><br>June Oria         | 11 |

### B maila

|            |                                         |    |
|------------|-----------------------------------------|----|
| 1go Saria: | <b>Xaxi errota Migel</b><br>Jon Jauregi | 13 |
| 2. Saria:  | <b>Nire istorioa</b><br>Jon Mazkarian   | 17 |
| Aipamena   | <b>But zapatila</b><br>Garbiñe Aizpurua | 21 |

### C maila

|            |                                               |    |
|------------|-----------------------------------------------|----|
| 1go Saria: | <b>Nork jakin</b><br>Laura Gabirondo          | 25 |
| 2. Saria:  | <b>Berdintasunaren bila</b><br>Naiara Sarasua | 31 |

### D maila

|            |                                                                          |    |
|------------|--------------------------------------------------------------------------|----|
| 1go Saria: | <b>Josep eta bere bizitzako egunik zirraragarriena</b><br>Aitor Gisasola | 35 |
| 2. Saria:  | <b>Ez pentsatu</b><br>Naroa Amondarain                                   | 45 |

### E maila

|            |                                                           |    |
|------------|-----------------------------------------------------------|----|
| 1go Saria: | <b>Ahaztu ez daitezen</b><br>Eneritz Iraola               | 53 |
| 2. Saria:  | <b>Kolore guztietako betaurrekoak</b><br>Saionara Barrena | 63 |

# Hitzaurrea

---



Agur t'erdi:

410 ipuin jaso ditugu aurtengoan. 410 idazlek idatzitako 410 ipuin. Zuek gabe ezinezkoa izango litzateke Teodoro Hernandorena IX. Ipuin Lehiaketa hau garatzea. MILA ESKER. Idazleei, noski. Behin eta berriz lehiaketa honetan parte hartzen duzuelako. Irakasle, guraso eta lagunei, ziur bainago lanak aurkeztu dituzten idazleek zuen laguntza eta babesa izan dutela. Eta eskerrik asko ipunak irakurri, aztertu, baloratu eta saridunak izendatu dituzten epaimahaikideei, osatu behar izan ditugun bi epaimahaietako epaimahaikideei.

Joseba Aurkenerena eta David Tijero izan dira A eta B mailatako epaimahaikideak. Edu Zabala eta Karlos Aizpuruak izan dute C, D eta E mailetako aukeraketa egiteko lana. Lan eskerga izan dute, zalantzarik gabe.

IX. lehiaketa, beste zortzi izan dira aurretik. 2002an berria zen Kultura eta Euskara Saila udalean, eta lehiaketa hau martxan jarri zuen, arrakastarik izango zuen jakin gabe. IX. edizioko irabazleak dira esku artean dituzunak. Arrakasta izan du, bai!

Teodoro Hernandorena bertsozale zizurkildarraren izena darama ipuin lehiaketa honek. Ahozko literaturaren eta oro har euskaren alde egin zuen lana eskertzeko modu xume bat da honako hau, omenaldi txi-

kitzat ere har daitekeena. Bere izen ona zabaltzea lortzen badugu gure helburua ederki beteko dugu. Lehena eta oraina lotzea da gure hizkuntza eta literaturaren alde egin dezakegun ahaleginetako bat.

Lehiaketa deialdi hau urtero luzatzearekin euskal literatura lantzea da gure xede nagusia, euskaraz idatzi zein irakurtzeko zaletasuna zabaltzea. Gaur egun teknologia modernoak (txatak, e-postak, esamesak, ...) betiko idazkera zein irakurketa ordeztu omen ditu. Gazteek erabiltzen omen dituzte gehienbat. Aurtengoan, besteetan bezala, nabarmena izan da gazteen parte hartzea. Eta, gure harridurarako, bestetan baino E mailako ipuin gehiago jaso dugu. Urterik urte adin maila guztietako idazle gehiago animatzen zarete parte hartzera. Horretan jarraitzeko bideak jartzea da gure asmoa!

Liburu hau zure eskuartera iritsi bada, ez galdu aukerarik. Liburu honetan dituzu 10 irabazleak eta aipamen berezia jaso duten beste bi ipuinak.

Ireki liburua, denbora apur bat lasai-lasai hartu eta egun irakurtzea eta idaztea gutxi batzuen eginkizun bada ere, irakurriz goza dezazun desio dizut.



**Mª Angeles Lazkano Larrañaga**

Zizurkilgo Alkatea





■ A. maila • 1. saria

ALAIN JIMENEZ

.....

## Martziano majikoa

Bazen behin 8 urteko mutil bat gaua iristen zenean zeruan zeuden izarrek begiratzea gustatzen zitzaiona.

Gauero imajinatzen zuen espazio-ontzi batean muntatzen zela eta zeruan zeuden izar batzuetatik besteetara ibiltzen zela.

Gau batean, ohean etzanda erdi lo zegoela, norbaitek bere leihoa jo zuen. Mutilak begiak altxatzerakoan,... ah! Zelako sorpresa!. Han martziano bat zegoen berari begira. Berde- berdea zen eta bere aurpegi berdean, hiru begi handi zituen erdi-erdian. Hasiera batean mutila ikaratu egin zen, baina martzianoa barrez ikusi zuenean, ohetik jaiki eta leihoa ireki zuen. Bat-batean martzianoak esan zion:

- Kaixo Jon, nik Trasmisor izena dut eta badakit zuk espazioa ezagutu nahi duzula. Zergatik ez zara nirekin etortzen?

Jonek martzianoarekin joatea erabaki zuen. Espazio-ontzia martxan jarri zen eta izar batetik bestera ibiltzen aritu ziren. Planeta guztiak ikusi zituzten eta horrela pasatu zuten gau osoa.

Hurrengo goizean, Jon esnatzerakoan, dena amets polit bat izan zela pentsatu zuen. Baina ikastolako gauzak hartzerakoan, berak martzianoarekin ateratako argazki bat ikusi zuen bere mahaian.





■ A. maila • **2. saria**

MADDI GALARZA

.....

## Pedroren amets misterioetsua

Bazen behin Pedro izeneko aitona bat. Baxua zen eta 70 urte zituen.

Etxe txiki batean bizi zen bera bakarrik. Oso alaia zen eta lagun pila bat zeukan. Goizean ibilalditxo bat egitera joan zen bere lagunekin. Ilundu zenean etxera joan zen. Patata tortila afaldu eta, gaua zenez, ohera joan zen.

Jaikitzean ispiluan bere burua ikusi eta... 5 urte zitueneko pertsona ikusten zuen ispiluan. Bera zen! Txikia, polita eta ahotsa finekoa. Gosaltzera joan zen eta pixka bat gosaldu eta gero, lasaitu ederra hartu zuen.

Goizean bere lagunekin kalera atera eta bera ikustean lagunak barrez, jajajajajaja! hasi ziren.

-Zer pasa zaizu?

-Ez dakit eta ez dut jakin nahi ere.

Eta lagunak barrez eta barrez jarraitzen zuten .Azkenean isildu ziren. Baina herriko ezagunak barrez lehertzen zebiltzan.

Gaua iritsi zen, lotara joan zen eta amets gaiztoak zituen. Ametsetan gero eta txikiagoa zen, hilabete bateko haur batetan bihurtzen zen.

Egunero beldurrez eta kezkatuta egoten zen.

Egunak eta egunak pasa ziren baina berdin jarraitzen zuen Pedrok. Bere buruarekin haserretu egiten zen. Zer zen hura? paretari jotzen, bere iletik tiratzen...

Udaberria zenez igerilekura joan zen. Umea zenez abantaila zuen salto egiteko, uretan txiribuelta egiteko. Egia esan oso ondo pasa zuen. Askotan igerilekura joaten zen eta gauza dibertigarri asko egiten zituen. Azkenean nahiz eta umea izan ondo pasatzen zuela konturatu zen.

Ostirala zen, goizeko zortziak. Pedrok begiak ireki zituen ,besoak luzatu eta salto batez ohetik altxa zen. Pixa egin ondoren komuneko ispiluan begiratu zen eta aiton baten aurpegia ikusi zuen, bere benetako aurpegia, noski!

Zer izango ote zen pasa zena? galdetu zion Pedrok bere buruari. Halako batean... dena, pasatako guztia, amets bat izan zela ohartu zen.

Pedrok hauxe esan zion bere buruari: Ni Pedro naiz eta inoiz ez naiz aldatuko.

Kolore kolore Pedroren amets misteriotsua bukatu da.



■ A. maila • **Aipamena**

JUNE ORIA

.....

## Itsasoko ur epeletan

Inork ez nau ezagutzen. Bakarrik nago. Nire etxeak itsasoa ematen du. Leku iluna da, baina oso goxoa.

Nire amak jateko nahikoa ematen dit. Nire lan bakarra ur epel hone-tan jatea eta lo egitea da. Asmatu al duzue nor naizen?

Bai horixe, pentsatzen ari zareten hori naiz: Umetokian hazten ari den haurra naiz.

Oraindik ez dut izenik ezta aurpegi ezagunik ere, baina badakit muti-la naizela. Ez naiz jaio baina gauza asko dakizkit, bai horixe!

Badakit nire izena Markel izango dela. Badakit, ere, Euskal Herriko herri txiki batean jaiko naizela. Oso polita omen da: Mendi berde-ber-deak dauzka, herriaren erdian eliza eder bat omen dago eta baserri guztiak zuriak dira.

Ni, nire gurasoen bigarren umea naiz.

Nire arreba gogaikarri bat da, eta uste dut asko borrokatuko garela. Beti negarrez dagoenez ez dit uzten lo egiten nire amaren sabelean. Nire ama asko gustatzen zait, barre asko egiten du eta kilima asko egi-ten dizkit.

Nire aita, berriz, oso isila da, lagunekin ere ez du asko hitz egiten.

Atzo, herriko festetan, ama eroa bezala trikitixarekin dantzatzen hasi zenean, nik uste nuen ondoratu egingo nintzela.

Nire arreba lagun baten etxera joan zen lotara eta nire amak eta nik oso ondo deskantsatu genuen.

Batzuetan nire amak gauza goxoak esaten dizkit eta nik behatz poto-loa ahoan sartu eta pozik lo egiten dut.

Iritsi da egun handia! Prest nago hemendik ateratzeko. Nire familia ezagutu nahi dut. Maite ditut denak!

Ostikada handi bat eman dut eta poltsa hautsi da eta nire amak hartu duen sustoarekin oihuka hasi da. Nik presa handia nuenez, nire ama gaixoa ohean etzan, eta lau bultzakada eginez atera nau bere sabel goxotik.

Nire lehen negarra bota ondoren ume polit bat ikusi nuen aho zaballik. Begiak bere lekutik kanpoan zituela zegoen niri begira, ikusten zuena ezin sinetsirik.

Gaur egun nire ahizpa Nadia eta ni askotan borrokatzen gara baina hala ere asko maite dugu elkar.

Oraindik ere gogoan ditut nire amaren sabel goxoan egondako hila-beteak. Hondartzara joaten garenean itsasoko uretan kulunkatzea gus-tatzen zait amaren sabela gogoratuz.

Orain, udaran, larunbatero hondartzara joaten gara. Hau zoramena!

Koloreak eta koloreak larunbatero hondartzara kulunkatzera.



■ B. maila • 1. saria

JON JAUREGI

.....

## Xaxi errotako Migel

Mutiko bizia zen, bizkorra eta argia, alaia, hartzuna eta guztientzat atsegina. Jaunartzea egin berria zuen, hau da, bederatzi urte inguru.

Etxean aiton-amon, guraso eta bere arrebeekin bizi zen. Ez zen etxe handia, baina oso berezia, Errota zelako. Andoainen baziren beste batzuk (Errota zahar, Sorabilla errota, Goiko errota etab.). Orduan errotek garrantzi handia zuten. Bertara hor inguruko baserrietatik eramaten baitzuten ehotzera artoa eta garia; garai haietan beharrezko ziren elikadura-errotak. Uraren bidez lan egiten zutenez, Xaxi Errota Ubango errekatxoaren ondoan zegoen. Ur bide batez errekatik etxe atzean zuten ur putzura ura joaten zen eta, betea zegoenean eta lan egin behar bazen, ur pasoa ireki eta beraren indarrarekin gurpil handi bat mugimenduan jartzen zuen eta honek, aldi berean, harrizko errota. Errotak ez ziren beti martxan egoten, urte garai batzuetan lan gehiago izaten zen besteetan baino, eta lasai ziren egunetan etxe bueltako harrizko paretak konpondu, ur bideak garbitu eta etxean ziren soro, baratx eta animaliak zaintzea izaten zen zeregina. Migel eskolara joaten zen herriko beste haurren modura, baina, besteak ez bezala, asto gainean joaten zen. Migelek aitonak laguntzeagatik oparitutako astoa

zuen, Iruñeatik ekarritakoa. Horregatik Fermin izena jarri zion. Asto gaztea, txikia eta umila zen, beltz beltza, eta gehienetan Migel eta bere asto Fermin batean ibiltzen ziren.

Migel eskolara astoarekin joateak bazuen esplikazioa. Bidai batez etxez etxe, beraiei ehotako arto irina partitzen zuen eskolara sartu aurretik. Horregatik herrian Migel haur ezaguna eta maitatua zen.

Baina inguru haietako egoera ez zen batere lasaia; gerran zeuden. Karlista gerran, batzuk Karlos erregearen aldekoak ziren eta besteak, berriz, Liberalak ziren.

Eguneroko bizitzan asko antzematen ez bazen ere, soldaduak han-hemendik ikusten ziren. Herritar gehienak Karlisten alde zeuden, baina baziren Liberalen aldeko batzuk ere.

Migelek, gaztea izan arren, inguru guztiak ezagutzen zituen, eta, aitak, arratsalde batean Urrillondo baserrira astoarekin joateko eskatu zion. Oso bide polita zen, baina etxeratzeko ilundu egin zitzaion eta bidean beldurtu zuen zerbait ikusi zuen urrutira. Inoiz ikusi zuen soldadu talde handiena. Haiek armak ari ziren prestatzen.

Etxerako bidea korrika bizian egin zuen eta, gurasoei ikusitakoa esandakoan, badaezpada Errotan zituzten irinak gordetzea hobe izango zela pentsatu eta Ubango kobazulora eraman zituzten.

Hurrengo egunean, goizean goiz, soldadu talde bat agertu zen etxean eta jeneralaren aginduak zirela eta etxetik irteteko agindu zien. Ondoren, errotari su eman zioten. Familiako guztiak negarrez zeuden eta inguruan zuten ardi-borda batera joan behar izan zuten. Eskerrak bezperan Migelek janariak gorde zituela, bestela orain ezer gabe egongo ziren! Xaxi errotan gertatu zen modu berean ehun baserritik gora erre zituzten egun berean.

Borrokak gogoratzen ari ziren Santa Kruzko zubiaren inguruan eta Migelen aitak jakin zuen Nafarroatik soldadu gehiago etortzekoak zirela karlistei laguntzera eta Migeli eskatu zion laburbidetik eramateko. Etxean zuten haserrea ikusita segituan joan zen, eta han, bide ertzean, iluntzean agertzen hasi ziren soldaduak. Migelek, beraiengana hurbil-

du, eta gertatzen ari zena kontatu zien eta inork baino hobeto zekizkielela hor inguruko bide eta lasterbide guztiak. Soldadu hauek, harriturik, Migeli sinetsi eta bere atzetik jarraitu zioten, Fermin astoa denen buru zela.

Gauez egin zuten bidaia Migelen etxe ingururaino eta han, amak prestatutako taloak jan ondoren, Plazaolako trenbideko zubi azpian lo egin zuten. Hurrengo goizean goiz, denek Migeli pasadizoan batek buruan igurtzi, besteak eskua eman eta askok par esker onekoarekin, borrokara joan ziren.

Migelek ondorengoaren berri izan ez bazuen ere izugarrizko garaipena lortu zuten karlistek, Nafarroatik etorri zen gazte talde haren laguntzaz.

Herrian laster jakin zen Migelen portaera eta herritarrek baita esker-tu ere: Xaxi errota berriro martxan jartzeko behar zuten laguntza eman zuten herritarrek.

Gerra bukatu bazen ere, Migelek urte askoz jarraitu zuen errotari, inguruko baserrietako arto eta gariak eho eta kalera partitzen.





■ B. maila • 2. saria

JON MAZKIARAN

.....

## Nire istorioa

Kaixo! Nire izena Jon Mazkieran Hernández da, 9 urte daukat, Andoainen bizi naiz nire amarekin, nire aitarekin, nire anaiekin eta nire katu maitagarriarekin. Viki izena du.

Nire aita eta ama oso zaletuak dira genealogiarekin. Nire familiaren arbola oso zaharra da, Mazkieranena 1.600 urtetik daukagu eta bestea 1.700 urtetik. Esaten badut nondik natorren, leku guztietatik esango dut: Kantabriatik, Burgostik, Nafarroatik, Gipuzkoatik, Arabatik, Cacerestik etorri ziren nire senideak.

Nik lau aitona-amona daukat, denok bezala. Uste dut zortea daukadala, lauak Andoainen bizi direlako. Gustatzen zait nire historia eta nire familiarena, nire aitonak eta amonak kontatzen dizkidatenak,...

Batzuetan nire amona Juliak kontatzen dit nola zen bere bizitza txikia zenean.

Nire amonak 2 urte zituenean bere aita zaldi gainean joan zen beste herri batera eta bidean euri asko erori zen, negua zelako. Egun horretan, katarro handi bat hartu zuen, katarroa pulmonia bihurtu zitzaion. Urte bat pasa zuen gaixorik eta azkenean hil egin zen. Hau oso tristea

da nire amonarentzat, berak 3 urte bakarrik zituen eta, gainera, bere ama bakarrik gelditu zen 5 umeekin. Nire amona zen bosgarrena, txikiena. Lurrak eta etxe bat saldu zituzten penizilina erosteko, baino ezin zuten. Gainera behartsu geratu ziren.

Nire amona ume guztiak bezala eskolara joaten zen, baino bere amak 10 urterekin atera zuen eskolatik lanera joateko eta nire amonak asko sufritzen zuen. Eskola asko gustatzen zitzaion, baina ezin zuen gehiago joan.

Bere lana egiten zuen denda batean ezer irabazi gabe, horrela sei hilabetez, eta gero 80 zentimo irabazten zituen hilero. Horrela hasi zen nire amona, lan eta lan. 14 urte zituenean denda utzi zuen eta bere anai-arrebekin joan zen baserrira lanera.

Zelaian lanean, nire aitona ezagutu zuen eta oso lagunak bihurtu ziren eta gero ezkondu ziren.

Ordiziara etorri ziren lantegi batean lanera, inoiz ez ziren atera bere etxetik, 22 eta 24 urte zituzten, dena berria zen.

Hemen bizitza berri bat hasi zuten. Gero nire ama etorri zen, gero nire osabak, eta nola etorri nintzen ni eta nire anaiak? Hori beste istorio bat da. Nire aitatzoren istorioa behar dugu, ni aitatzorena eta amatxorena naiz eta.

Pentsatzen dut ni hemen egotea oso arraroa dela. Badakizu zergatik? Ba nire aitonak eta amonak Andoinera bizitzera etorri zirelako, nondik? Julia eta Cipri, Montehermosotik etorri ziren eta Javier eta Pepi Burgostik eta Olaztitik.

Hau bai kasualitatea!!

Javier eta Pepik Bruselan ezagutu zuten elkar, lanean hauek ere. Pepi Belgikara joan zen lagun batekin lanera, umeak zaintzera. Javier bere anaiarekin joan zen, lagun batekin ere bai.

Igande guztietan elizara joaten ziren, Karmenen Elizara, han aurkeztu zioten Javierri. Lehenengo koadrila bezala joaten ziren baino gero nobio bezala.

Espainiara itzuli ziren bizitzera, Pepi, Burgosera eta Javier Olaztira. Gero Javier hasi zen lanean Donostian eta etxe bat erosi zuen Andoainen, gero ezkondu ziren eta elkarrekin etorri ziren Andoainera bizitzera. Gero etorri zen nire aitatxo, eta gero nire izebak.

Nire lau aiton amonak emigranteak ziren, eta ni oso harro nago beraietaz. Horri esker hemen nago ni. Pena handia ematen dit gaurko emigranteak hiltzen dituztenean, historia berdina delako. Atzokoek eta oraingoek berdina nahi zuten, bizi berri on bat.





■ B. maila • **Aipamena**

GARBIÑE AIZPURUA

.....

## But zapatila

Kaixo lagunok! Ni Urbil Supermerkatuan bizi naiz, Forum dendako zapatilen tokian. Nire izena But da eta denok dakizunez, ni zapatila pare bat naiz. Oso pozik bizi naiz Forumen .. Baina ez naiz zapatila normal batzuk, ez ez ez. Ni, futboleko jolasteko zapatila pare bat naiz. Oso onak gainera. Nire arazo bakarra da ni oso itsusia naizela eta, noski, horrela inork ez nau erosten. Eta norbaiti gustatzen bazaio ez du 25 (hogeita bost) zenbakia. Oso suerte txarra dut. Gainera, nire lagun bakarra erosi egin dute. Nire lagunaren izena Elit da eta nire kolore berdinak ditu: morea, laranja eta grisa. Bueno, nik gogoratzen dudala behintzat, kolore horiek zituen. Orain inporta duena da aspertuta nagoela, oso aspertuta. Eskerrak orain arratsaldeko bostak direla eta orain jendea etortzen hasiko dela. Bueno gehienak haurrak dira, baina bueno. Ume gehienak arraroak dira, baina erosten banaute, berdin zait arraroak izan edo ez. Gaur jende asko etorri da eta zapatila asko erosi dira, baina gaur ere suerte txarra eduki dut eta ez naute erosi. Orduan pentsatzen hasi nintzen...nola biziko nintzen norbaitek erosiko banindu?

HURRENGO EGUNEKO GOIZEKO BEDERATZIETAN...

Egun on denoi! Oraitxe esnatu naiz, baina ez dakit zer pasatzen zaidan, oso nekatuta nago. Normalean oso pozik eta alai egoten naiz. Ez dakit zer pasatzen zaidan. Jada 11:00 dira eta jendea etortzen hasiko da. Eskerrak!, zeren eta aspertuta eta nekatuta nago. Bueno, hor dator lehenengo bezeroa. Pixka bat estiratua da, ez dakit ni hartuko nauen. Hamar minutu pasa ziren eta ...

- Banekien! Banekien ez ninduela aukeratuko, esan ere egin dizuet eta.

Bueno, lasai orain beste bezero bat dator eta hau normaletakoa da.

Aiiiiiiiiiiii niri begiratzen ari da, eta probatu egin nau eta... Erosi egin nau! Azkenean!! azkenean!!! azkenean norbaitek erosi nau!!!!!!

Bueno, jada bere etxean nago eta ez da nik uste nuenaren antzekoa. Honek ez du etxe normal baten antza txikirik ere. Hala ere garrantzitsuena erosi nauela da. Orain, bere gelara eraman nau eta armairu barrura sartu nauenenean... HARA ZE SORPRESA!!! Nire lagunik onena hemen dagooooo!!!!!!!!!!!!

Ze pozik jarri naizen. UAU!!!!!! Hau bai ez nuela espero!! Ez nuen orain dela bederatzi hilabete ikusi. Orduan esan nion:

-Kaixo Ber, zer moduz zaude?

-Ni ondo baina zu zer moduz? Aspaldian ez zaitut ikusi. Ez zara ezer aldatu eeeeeeeeeeeeeee.

-Ondo nago baina orain ez dut hogeita bost cm neurtzen ez,ez,ez, orain hogeita bost eta erdi neurtzen dut.

-Oso ondo iruditzen zait.- Ordu bat pasa genuen hitz egiten. Orduan nire jabea agertu zen. Oso arraro zegoen jantzita: ume txikitik erabiltzen dugun "bodi" handi bat zeraman soinean. Normalean hamar urte baino gehiago dituztenek pijama normal bat erabiltzen dute, bueno, nik dakidala behintzat. Orduan ni hartu nau eta "zapatila berrien armairua" jartzen duen armairu ireki batera eraman ninduen. Armairua oso handia zen eta bere kolorea, marroixka. Bost egunetan, oso oso ondo zaindu ninduen, baina pixka bat gastatu ninduen, nire lagunaren armairura eraman eta ez zidan kasurik egin hogeita hamabi egunetan. Armairu

barruan arnasa gabe gelditu nintzen ia. Eskerrak atera ninduen bestela hilda egongo nintzen.

Bueno, gai hori ahaztu dut eta nire jabeak bere futbol partidura eraman nau. Hori oso ondo iruditzen zait edo hori uste dut, zeren eta nire jabea, taldeko brutoena da eta noski urratu egingo nau. Partiduko hasiera da eta nire jabea atera du entrenatzaileak. Orduan esan nuen:

-Ai ama!! Noiz atera beharko eta partiduaren hasieran!!! Gainera uste dut partidu guztia jokatu behar duela!!! Zer egingo dut orain nik! Baina bat-batean nire jabearen ahotsa entzun dut hau esaten:

-Eh Marko!!! Pasa baloia!! Bakarrik nago!!!

Eta berak esan du:

-Baleee -pasa didanean nire jabea aurreraka joan da ziztu bizian arnasestuka porteriako arearaino eta bota dudanean min izugarria eman dit eta urratu ere egin dit baina GOLA sartu dut!! Orduan denak builaka hasi ziren:

-GGGOOOOOOOOOOOLLLLL!!!!!!!!!!!!!!Gol sartu dugu gol!!!!-denak zorutzen zeuden, ni izan ezik zeren eta nik mina nuen. Etxera itzuli garenean armairuan sartu eta joan egin da, baina ez da konturatu ate guztiak irekita utzi dituela. Orduan Ber eta biok alde egin genuen etxetik zapata denda batera joateko. Ni oso urratuta nago, baina Ber ere bai. Etxetik atera eta bost minutura dagoen zapata dendara joan gara, baina itxita dago. Orduan gogoratu naiz Urbiletik nire jabearen etxera joan ginenean, beste zapata denda bat zegoela eta hor hogeita lau orduak irekita jartzen zuen kartel bat zegoela. Ahal dugun bezala joan gara eta iritsi ere. Zenbat kosta zaigun eeee Ber?

- Bai bai -erantzun zion Berrek!

Azkenean zapata dendan lan egiten duen emakumeak Ber eta biok berri-berri utziaz gainera zaindu eta bere etxera eraman gaitu (etxea oso etxe polita dela esan behar dut). Hala bazan eta ez bazan sar dadila zapatariaren salan eta ez dadila atera lehengo jabearen oinetan. Batez ere futboleko jolasten ari denean. Agur!





■ C. maila • 1. saria

LAURA GABIRONDO

.....

## Nork jakin

Aireportuko atearen aurrean erabat beldurturik nengoen. Ezin nuen sinetsi misiolari bezala Haitira joango nintzenik.

Nire izena Irati da, Bermeokoa naiz eta 19 urte ditut. Nire amak misiolari talde batean sartu ninduen duela urtebete. Hasiera batean bertan ez genuela ezer egingo pentsatzen nuen, baina, urtarilaren 12an Haitiko lurrikara gertatu ondoren bertara laguntzera joan beharrean aurkitzen nintzen. Ez nengoen bakarrik, nire lagun Mirenekin eta Gurutze Gorriko taldearekin baizik. Denak Suitzako Gurutze Gorriko taldearekin batera gindoazen.

Madrilgo aireportuko bozgorailuetatik hegazkinera igotzeko mezua adierazi zutenean negarrez hasteko gogo izugarria sartu zitzaidan. Ez nekien nola igarako nituen urtarilaren 20tik martxoaren 31rainoko egunak. Nire gurasoak eta anaia agurtu ondoren hegazkinera igo nintzen. Egun osoa hegazkinean igaro ondoren, azkenean, “Puerto Principe” hirira iritsi ginen.

Bertako egoera tamalgarria zen, eraikin guztiak lurreen zeuden, gorpuen deskonposizioa gertatzen ari zenez izugarrizko usain txarra nagusitzen zen bertan. Haur guztiak beraien gurasoak hilik ikusiz negar batean zebiltzan, beste asko berriz, 100 gramo arrozengatik lehia bizian.

Nire bizitzan inoiz ikusi gabeko irudiak ikusi nituen bertan egon nintzen 5 minutuetan. Herriaren erdialdean ginen gure taldea kokaturik. Gure lana, gorputzak jaso eta hilerrietara eraman eta gaixo zeuden hurrei laguntzean zetzan.

Goizean goiz esnatu ginen, 5:00etan hain zuzen ere, ordu horretarako lan mordo zegoen pilaturik. Elikagai gutxi genituenez, bazkaldu bakarrik egiten genuen egun osoan eta gainontzekoa hurrei eman. Lehen egunean nik 5 haurren ardura eduki nuen. Denek ebakiak bakarrik zituzten gorputzean, baina oso beharrezkoa zen haiek lehenbailehen sendatzea infekziorik sor ez zedin.

Nire lana bukatu bezain laster, Mirenengana joan nintzen. Bera gorpuak jasotzen zebilen eta arratsaldea berari eta Gurutzeko gainontzeko taldekideei laguntzen igaro nuen.

Egoera honetan egunak joan eta etorri ziren. Geroz eta gusturago hasi nintzen sentitzen, baina, hala ere, etxera joan nahi nuen.

Baina, egun batean, Roman izeneko mutil gazte bat ezagutu nuen. Bera suitzarra zen, berak zioenez berarentzako munduan zoriontsuen egiten zuen gauza besteei laguntzea zen. Hasiera batean oso txunditurik gelditu nintzen, ez bainuen ulertzen nola pentsa zezakeen horrelako gauza bat.

20. egunean nire familiaren lehen gutuna iritsi zitzaidan. Oso pozik jarri nintzen gutuna ikustean. Honela zioen:

*Kaixo Irati maitea:*

*Denok oso harro gaude egiten ari zaren lan eta esfortzua-rekin. Gu oso ondo gaude, zu ere horrela egotea espero dugu. Mikelek eskumuinak bidaltzen dizkizu.*

*Azken aste honetan Bartzelonan egon gara Bartzelona-ren partidu bat ikusten. Zoragarria izan zen. Inoiz ikusi genuen partidu zoragarriena izan zen.*

*Ondo egongo zarela koan, besarkada bat.*

*Zure familia.*

Amaieran, nire gurasoen eta nire anaia Mikelen argazki bat agertzen zen, “zuga pentsatzen” esaldia idatzia zuelarik. Horrek asko hunkitu ninduen eta momentu horretan konturatu nintzen familiaren garrantziaz.

Ordurako, Miren, Roman eta ni oso lagun handiak ginen, nahiz eta komunikatzeko erabili behar genuen hizkuntza ingelera izan. Romanek ez zuen gutunik edukitzen, ez baitzuen familiarik. Bera umezurtz-etxe batean bizi izandako mutil bat zela kontatu zidan, eta hemezortzi urte betetakoa misiolaria izatea erabaki zuela. Egun horretatik aurrera Roman nire lagun handienetako bat bezala hartu nuen.

Denbora aurrera zihoala komunikabideen lana ere ikusten joan ginen, geroz eta gehiago ikusten baitziren. Behin baino gehiagotan telebistek gure taldekideekin elkarriketak ere izan zituzten.

Niri eta talde osoari otsailean egokitzen zitzaigun lana eraikin zahar eta puskatuetak materialak jaso eta eraikin berriak egiten laguntzean zetzan.

Egunak oso gogorak ziren, ez zegoelako behar beste janari, eta kolera gaixotasuna Haitiko biztanleen artean banatzeko arrisku handia zegoen. Janari aldaketa eta kutsaduraren ondorioz gutako askok egun txarrak pasa genituen urdaileko minez.

Romanek eta nik, berriz, egunero elkar ikusten genuen eta Miren eta bera bikote bihurtzen ari zirela zirudien.

Otsailaren 28an Roman ondoezik jarri zen, orduan Mirenek medikuarengana eraman zuen. Medikuek Roman aztertu ondoren gripe bat zeukala eta aste bat ohean egon beharko zuela komunikatu zuten. Hasierako egunak oso gaizki pasa zituen. Azkenean Suitzara bidaltzea zela iruditu zitzaigun egokiena. Baina pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari zela zirudienez Haitin gelditzea erabaki zuen.

Baina gripearen azkeneko egunean bat-batean konortea galdu zuen Gurutze Gorriko gainerako taldekideekin hitz egiten ari zen bitartean. Momentu horretan anbulantziari deitu zioten eta ondoko herrian zegoen ospitale berri batera eraman zuten. Guk, hau da, Mirenek eta nik eta taldeko beste batzuk oinez joan behar izan genuen.

Ospitalera iritsi bitarteko ordu osoan, Miren negar zotinka zihoan, baina, ni ere ez nintzen atzera gelditzen. Nik ere Romanenganako zerbait sentitzen nuela pentsatzen hasita nengoen duela egun batzuetatik, baina sentitzen nuena benetakoa zela konturatu nintzen.

Ospitalera ailegatu bezain azkar medikuengana joan eta bere bizitza arriskuan zegoela adierazi ziguten. Pulmonia eta A gripea batera zituenez bere gorputza oso ahulduta omen zegoen. Hainbat saiakera egin ostean, medikuek Roman ikusteko aukera eman ziguten.

Berarengana joan eta hitz egiten hasi ginen:

-Zer moduz zaude Roman? -galdetu nion nik, Miren oraindik negarrez baitzegoen.

-Ondo sentitzen naiz -Esan zigun, baina orduantxe bera lotuta zegoen makina soinu arraroak egiten hasi zen.

Une horretan, Roman justu-justu hasi zen arnasten. Gero, mediku talde bat sartu zen gelan eta irteteko agindu ziguten. Erreanimazioa praktikatzen hasi ziren.

Hamar minutu horietan Haitin egon nintzen momentu mingarri guztiak gogoratzen hasi nintzen. Inoiz ikasi nuena baino gehiago ikasi nuen, nahiz eta ikasi eta ikusi nuen hori oso mingarria izan.

Medikuak logelatik atera zirenean hil egingo zela komunikatu ziguten ordu edo minutu gutxitan. Gelara sartu eta Romanek hitz hauek esan zizkigun.

- Inoiz eduki ditudan pertsona garrantzitsuenetarikoak zarete. Segi bide horretatik, jende asko zoriontsu egingo dituzue eta. Nire amaiera iritsi da, baina zuen hasiera bakarrik da. Maite zaituztet. Nire bihotzean izango zaitut beti Miren. Miren.

Hitz horrekin amaitu zen nik bizitzan pasa izan nuen momentu mingarrienetako bat. Bizitzaren funtsa ulertu nuen momentu horretan. Nahiz eta ez asko bizi, momentu bakoitza bizi behar zela iruditu zitzaidan.

Ondorengo egunak oso gogorak egin zitzaizkigun Gurutze Gorrikoei. Pozik ginen azkeneko astea zelako. Aireportura joan baino lehen Mirenek

gutun bat idatzi zion Romani. Bera lurperaturik zegoen lekura joan ginen, bertan loreak eta gutun bat utzi genizkion. Haitin lehenengo egunean ezagutu nituen mutikoei, Roman lurperatuta zegoen lekua ondo zaintzeko eskatu nien. Haiek baiezkoa eman ostean aireportu aldera joan ginen.

Aireportuan nengoela esaldi bat iritsi zitzaidan nire burura, gehienetan Romanek aipatzen zuena: "Nork jakin noiz izango zaren zoriontsu?". Esaldi horren zentzua ulertu nuen. Nahiz eta Haitin nengoen bitartean oso momentu gogorrak pasa izan, benetan zoriontasuna lortu nuela nekien.

Madrilgo aireportuan lurreratzen geundela nire familia guztia ari zen niri itxaroten. Denak agurtu ondoren nire amarengana joan nintzen eta gauza bakarra esan nion: "eskerrik asko".

Hori esan ostean, denak Bermeora itzuli ginen eta bertan izugarrizko festa egin genuen.





■ C. maila • 2. saria

NAIARA SARASUA

.....

## Berdintasunaren bila

Bazen Monika izeneko neskato bat. 14 urte zituen eta Madrildarra zen. Oso gustura eta pozik bizi zen, horregatik alai zegoen beti.

Egun batean, aitaren lana zela eta, Irlandara joan ziren bizitzera. Ez zuen beste aukerarik izan eta hara joan zen bere lagunak Madrilen utzita. Berarentzat arazo bat zen hori, ez baitzekien oso ongi ingelesa, eta eskola berri batean sartu behar zuen. Lagun berriak ere egin behar zituen, eta urduri xamar zegoen. Uda zen, beraz, ingelesa praktikatzeko bazuen denbora pixka bat, baita lagunak egiteko ere. Baina horrek ez zuen lasaitzen. Hara iritsi zirenean guztia desberdina egin zitzaion. Bere etxea oso handia zen eta bere logela aurrekoa baino politagoa eta handiagoa.

Jada aste pare bat pasa zen eta Monika asko saiatzan ari zen ingelesarekin. Kalera ere ateratzen zen herria ezagutzeko eta lagunak egiteko. Oraindik ez zuen lagunik, baina ez zuen esperantza galdu. Hiru aste eta erdi geratzen ziren eskolan hasteko, eta gero eta urduriago zegoen. Amak lasai egoteko esaten zion, neska jatorra zela eta segituan egingo zituela lagunak. Irtsi zen eskolara joateko eguna. Monikak aurreratu zuen apur bat ingelesa, baina oraindik asko falta zitzaion.

Eskolara joan zen goizean, eta guztiek arraro begiratzen zioten. Klase-ra sartu ziren. Oso urduri zegoen. Irakaslea etorri zen eta Monika aurkeztu zien. Asko saiatu zen beraiei ingelesez hitz egiten, baina guztiak parrez hasi ziren. Triste zegoen, baina aurrera egin zuen. Jolas-orduan bakarrik egon zen. Inork ez zion jaramon egiten. Etxera iritsi zenean, amak ea zer moduz ibili zen galdetu zion, eta honela erantzun zion:

- Nire aurkezpena egiterakoan, guztiak parrez hasi zaizkit, eta jolas-orduan bakar-bakarrik egon naiz. Inork ez dit jaramonik egin.
- Lasai egon. Lehenengo eguna izan da eta normala da. Laster izango dituzu guztiak zeurekin-erantzun zion amak.

Monika logelara joan zen. Bere denbora librean ingelesa praktikatzen egoten zen. Pixkanaka-pixkanaka ari zen ingelesa hobetzen, baina lagunik gabe jarraitzen zuen. Horrela egunak joan eta egunak etorri. Azkenean, lehen ebaluaketa bukatu eta notak ekarri zituen etxera. Egia esanda, hasi berria izateko, oso nota onak ekarri zituen. Ingelesa, nahiko ondo menderatzen zuen jada. Egunak pasa hala, gero eta hobeto zihoan eskolan. Irakaslea harriturik zegoen. Ia gelako onenaren notak atera zituen. Oso saiaturia zen, eta asko nabaritu zitzaion ingeles mailan. Hala ere lagunak baztertu egiten zuten, baina ez zuen ulertzen zergatik. Irakaslea konturatu zen horretaz, baina isilean zebilen. Monika triste zegoen alde horretatik. Honelako egun batean, klasea hastera zihoa-nean, bere eserlekutik altxatu eta haxe esan zien guztiei:

- Begira, gauza bat esan behar dizuet. Zergatik ez duzue nirekin egon nahi? Kanpotarra naizelako? Ez nekielako oso ongi ingelesa? Azkarra naizelako? Ez dut ulertzen. Besteek bezala nahi ditut lagunak eduki. Zer egingo zenukete nire lekuan? Jo ezazue kanpora joan behar duzuela bizitzera, eta ni bezala tratatzen zaituztetela. Ongi irudituko litzaizueke? Ba ongi pentsatu, baina ez dut uste ezer egin dizuedanik.

Guztiak txundituta zeuden. Ez zuten honelakorik espero. Klasearekin jarraitu zuten, baina jolas-ordua iritsi zenean irakaslea hurbildu eta haxe esan zion:

- Txundituta utzi nauzu. Bikain jokatu duzu. Konturatuta nengoen zure egoeraz, baina denbora gehixeago pasatzea nahi nuen. Espero dut honek funtzionatzea, bestela...


Irakaslea oso gustura zegoen eta Monikak ere pisu ederra kendu zuen gainetik. Harro zegoen egindakoaz. Berak lortu nahi zuena, denak berdin tratatzea zen, eta ez ezberdinak zirenak baztertuak izatea. Orain ziur asko gelakideak Monikak esandakoa pentsatzen ariko ziren. Beste egun batzuk ere pasatu ziren horrela, baina ikasleak Monikaren kasuan jartzen ahalegindu ziren. Halako batean, hurbiltzen bezala hasi ziren, bere lagunak izan nahiko balute bezala. Pixkanaka-pixkanaka bera ere ohartzen hasi zen gero eta hurbilago zituela. Egun horietako jolas-ordu batean, 4 gelakide etorri zitzaizkion, eta honela esan zioten:

- Kaixo Monika! Hara, barkamena eskatzera etorri gara. Ez dugu zurekin batere ongi jokatu. Tuntun hutsak izan gara, baina zure lekuan jartzen saiatu gara, eta konturatu gara ze gaizki pasatu duzun. Lagunak izatea nahiko genuke, eta espero dugu, gu bezala, besteak ere zugana hurbiltzea.

Monika oso pozik jarri zen. Honela, pixkanaka-pixkanaka, lagunak hurbiltzen hasi zitzaizkion, eta berak Madrilen pasatako momentuak kontatzen zizkien, eta beraiek Irlandan egiten zituzten gauzak kontatu zizkieten eta herria erakusten zioten.

Honela lortu zuen Monikak denek besteenganako errespetua izatea, eta inor ez baztertzea.





■ D. maila • 1. saria

AITOR GISASOLA


.....

## Josep eta bere bizitzako egunik zirrargarriena

Josep esnatu zenean 6:30ak inguru ziren. Leihotik begiratu eta eguzkia irteten ari zela ikustean, pozik pentsatu zuen: *“gaurkoak egun lasaia dirudi.”* Baina oker zegoen, oso oker gainera. Egun hori ez zen lasaia izango, ezta gutxiagorik ere. Ziurrenik bere bizitzako egunik zirrargarriena eta aztoratuena izango zen. Josepek 47 urte zituen, ezkongabea zen eta *Mossos d'Esquadra*, hau da, Kataluniako erkidegoko polizia autonomikoaren kideetako bat zen. Nahiko txikia zen eta apur bat lodia; burusoila eta aurpegi biribilekoa zen, begi beltzak, belarri haizemaileak eta sudur handia zituen. Goizero bezala, dutxa bat hartu eta bizarra moztu zuen. Ondoren, bapo gosaldtu, hortzak, nahiz eta jada horiak izan, garbitu eta bere uniformeak jantzi zuen. Egunero bezala, *“berriro ere nire beharrik ez duten lanpostura joan behar”* pentsatu ostean hasperen egin eta komisaldegira abiatu zen. Bertan, egunero lez, ordenagailua piztu eta atxilotu batzuen historialak begiratzeko jarri zuten. Gainontzeko kide gehienak droga kontsumoarekin zerikusia zuen misio batera joan ziren eta komisaldegian bera eta beste bi kide, nor baino nor traketsagoak, geratu ziren. Halako batean, telefonoak jo zuen, ring-ring-ring!

- Bartzelonako *Mossos d'Esquadren* komisaldegia, bai esan?
- Mayday, mayday! Nire gizonari tiro bat eman diote sabelean, larri dago! Etor zaitezte azkar mesedez! Güell parkean dago larri zauriturik, anbulantziei abisatu diet! – esan zuen andere baten aho-tsak.
- Lasai anderea, segituan goaz!

Eta moztu egin zuen. Josepi ia-ia bihotzekoak eman zion. Bi kideei abisatu, patruila autoa hartu, sirena burrunban jarri eta ziztu bizian Güell parkera abiatu ziren. Josep oso urduri zegoen, bere lehenengo misio garrantzitsua zen; urte asko zeramatzan kuartelean sarturik une hau itxaroten. Behin unea iritsi zenean ez zekien zer egin behar zuen, baina bai zer gertatuko zen egin behar zuena gaizki egiten bazuen. Segituan iritsi ziren, 10 minututan gutxi gora behera. Güell parkea zen Josepi Bartzelonatik gehien gustatzen zitzaion tokia, Antoni Gandí arkitekto katalanak eraiki zuen 1900 eta 1914 urteen artean eta bere elementu arkitektoniko ausart eta koloretsuengatik da ezaguna batik bat. Poliziak iritsi zirenerako bertan bi anbulantzia zeuden zauritua suspertu nahian, baina hainbat saiakeraren ostean eta zaurituak pultsua galdu ondoren, inork entzun nahi ez zuena baieztatu zuten. Hil egin zen. Orduan, anbulantziak baztertu eta mossos d'esquadren txanda zen. Josepek argi zeukan zein zen bere eginbeharra: hiltzaileak atxilotzea. Gorpua aztertu ostean, Arnau de Tousek, beste bi poliziatako batek, gutun bat aurkitu zuen. Barnean izar formako irudi bat zegoen, barnean zerbait idatzirik zuela.



Zer demontre esan nahi ote zuten hitz horiek? Josepen lehen susmoa, hiltzailearen sinadura izango ote zen izan zen. Baina sinadura izatekotan, izarra soilik agertuko zen, ez zenbaki eta letra horiekin. Dena dela, ikur arraroari argazki bat atera eta kriptografoengana bidali zuen. Hauen lana, matematika erabiliz, informazioa zifratzea eta deszifratzea da eta, beraz, adituak ziren kode bitxiek gorderik zuten informazioa aurkitzen. Argazkia bidali eta 20 bat minutura, Josepen mugikorrak hots egin zuen:

- Josep Roig, *mossos d'esquadrako* kidea, bai esan?
- Josep, kodea deszifratu dugu!
- Lan bikaina. Esadazu!
- Plaça de Catalunya, hau da, Kataluniako plaza, esan nahi du. Goiko zenbakiek beheko letra bakoitzaren benetako ordena adierazten dute.
- Eskerrik asko benetan. Beste dei bat dut, gero arte.

Moztu bezain laster bigarren mugikorra hartu zuen.

- Josep Roig, *mossos d'esquadrako* kidea, bai esan?
- Josep! Beste hildako bat dugu, hau Sarriá auzoan agertu da. Uste dugu aurreko hilketarekin zerikusia izan dezakeela. Lepoan jaso du emakume zoritxarreko honek tiroa.
- Ongi da. Berehala goaz hara!

Jada urduritasunak galdu zituen Josepek. Kataluniako plazatik igaro baino lehen hilketa hartaz arduratzea zela onena iruditu zitzaion eta Sarriárantz abiatu ziren. Trafikoa zela eta, ordu erdi behar izan zuten iristeko. Emakumea lurrean zegoen, hankak eta besoak zabalduta. Odol putzu bat zuen buruaren azpian eta jendea bertara ez inguratze-ko jarriak zeuden zinta gorriez inguraturik zegoen. Zuzen zeuden *mossoak*, aurreko hilketarekin zerikusi zuzena zuen. Gorpua aztertzen hasi eta berehala aurreko hilketan bezalako gutun bat aurkitu zuen Josepek. Honako honetan ere bost ertzeko izar bat zuen barnean:




Josepek gauza arraro bat sentitu zuen izarraren barnealdea irakurtzean. Inspirazioa deitu geniezaioke, baina hain bitxia izan zen sentsazioa, hotzikara handi bat sentitu zuela. Ondoren, berotasuna etorri zitzaion baina berriro irakurtzean argi zeukan: Portu Zaharra. Logikoa zen, arrainak eta itsasontziak non bestela? Eta "zaharrak" hori, beste aukerarik ez zegoen.

- Portu Zaharra, Portu Zaharra, Portu Zaharra! -egin zuen oihu.
- Oso buruargia Josep-esan zuten beste bi mossoek.
- Jada bi toki ditugu mutilak, –esan zuen Josepek. Geroz eta gertuago gaude hiltzailetik.
- Bai horixe!

Eta orduan berriro ere mugikorrak jo zuen:

- Josep Roig, *mossos d'esquadrako* kidea, bai esan?
- Hirugarren hildako bat aurkitu dugu Josep. Hau besteak baino gazteagoa, 20 urte besterik ez dituen mutil gazte bat da. Ia seguru besteekin erlazionaturikoa da hilketa eta beraz hiltzaile berdina da erruduna. Aurkitu beharra dago, bestela hildako gehiago egongo dira seguruenik. Etorri ahal duzuen azkarren Familia Santuaren tenplura.
- Ongi da. 5 minutuan bertan gara.

Zitzu bizian abiatu ziren Eixampleko barrutia aldera, bertan baitzegoen tenplua eta esan bezala 5 minututan bertan ziren. Familia Santuaren tenplua Bartzelonako monumentu ezagunenetakoa da eta hiriaren ikur nagusia, turistek gehien bisitatzen zutena aldi berean. Bertan hilketa bat ez zen egunero ikusten zen ikuskizuna eta jende multzo handi bat zegoen bizirik gabeko gorpua inguratzen. Josep eta beste mossoek, beraien nagusitasunaz baliatuz, jendea alde batera bidali eta gorpua aztertu zuten. Berriro ere zuzen zebiltzan. Beste gutun bat zeukan gorpuak, oraingo honetan anorakeko patrikan sartua. Honela zihoen:



Josep pentsakor geratu zen. Lehengo hitza “barça”, hau da, Bartzelona Futbol Taldeari ematen zitzaion abrebiaturak, ez zeukan zeri-kusirik beste hitzekin. Ala agian bai? Ez zuen ematen behintzat. Arro-sa, klabeledina eta lilia, hiruak loreak ziren, eta America kontinente bat. Beraz, futbol talde bat, kontinente bat eta loreak, zer nolako nahas-tea. Bizpauru minutu pentsatzen egon ostean ez zeukan ideiarik ere nondik nora joan behar zuen kodea deszifratzeko. Halako batean, ordura arte egun osoan ia isilik egon zen *mosso d’esquadrak*, Guillem de Cruïlles izenekoak hain zuzen ere, bi hitzetan zama handia kendu zion Josepi gainetik.

– *Les Rambles*, -esan zuen.

Orduan Josep buruari bueltaka hasi zen. Guztiak koadratzen zion, dena zuzena zen, denak logika zuen. Barça hitzarekin, Kanaletaseko iturriari, *Font de Canaletes*, egiten zion erreferentzia, hain zuzen Bar-

tzelona Futbol Taldeko afizionatuek beraien taldearen garaipenak ospatzen zituzten guneari. America Kristobal Kolon nabigatzaileak aurkitu zuen 1947an eta Bartzelonan bere omenez eginiko estatua bat dago. Arrosak, krabelinak eta liliak, bai loreak dira, eta gainera lore horiek dira Bartzelonan hain ospetsuak diren loradendetan gehien saltzen direnak. Bai iturria, bai estatua eta bai loradendak *Les Rambles*-ean daude. Hori gutxi balitz, *Les Rambles* Portu zaharraren, *Port Velle*, eta Kataluniako plazaren, *Plaça de Catalunya*, artean dago.


- Lan bikaina Guillem –esan zion Josepek. Orain badakigu zein den gure helmuga baina *Les Rambles* oso handia da, egun oso bat beharko genuke guztia arakatzeko eta jada arratsaldeko seiak dira. Pistaren bat behar dugu hiltzailearen benetako kokalekuaz ohartzeko. Dirudienez, guk bera harrapatzea nahi du, edo bestela uste du ez garela gai izango berarengana iristeko, baina oker dabil.
- Bai Josep oso oker dabil. Kokaleku zehatza badakidalakoan nago Josep. Komisaldegian hiru hildakoen ezaugarri komunak bat aurkitzen saiatu dira eta lortu dute. Hirurak *Les Rambles*-eko gunek berdinetan egiten dute eguneroko bizitzaren zati bat. Lehenengo aurkitu dugun hildako gizonak kiosko txiki bat du *Les Rambles*-eko etxe bloke baten ondoan. Etxe bloke horretako 3. pisuan hildako emakumeak etxeakoandre gisara egiten du lan. Eta mutilak etxe blokearen oinean dagoen tabernan pasatzen du eguneko zati gehiena edanean. Gainera ordenagailu eramangarrira etxe blokearen argazkia bidali didate bertara joan gaitezen –esan zuen harro Arnauk.
- Izugarriak dira gure kideak. Informazio bikaina lortu dute! Ea, mutilak, goazen ziztu bizian *Les Rambles*-era hiltzaileari bisitatxo bat egitera.

Argazkia aztertu, patruila hartu eta buruan argi zuten etxe-blokea aurkitu zuten. Lehengo hildako emakumeak lan egiten zuten etxea arakatu zuten, baina bertan, beraien etxeakoandrea hil zutenaren notiziaz harriturik zegoen familia bat soilik aurkitu zuten. Kioskoa aztertu zuten

ondoren. Egunkari, aldizkari eta gozokiz beterik zegoen eta bertan ere ez zuten ezer susmagarriarik aurkitu. Eta azkenik, tabernara joan ziren, bertan buruzagia aurkitu zuten baso batzuk garbitzen.

- Kaixo tabernari jauna! Gauza arrarorik sumatu al duzu azken egun hauetan? –galdetu zion Josepek bere plaka erakutsi ostean.
- Ba egia esan ez. Baina gaur arratsaldean gizon bat etorri eta gutun hau eman dit eta esan dit *mossos d'esquadrei* emateko, beraz, tori –eta tabernariak gutuna eman zion Josepi– Gainera esan dit, inolaz ere ez irekitzeko, bestela ezbehar handi bat gertatuko zitzaidala. Nik, badaezpada ere kasu egin diot.
- Eta ondoren nora joan da gutuna eman dizun gizona?
- Ba uste dut komunera joan dela. Ez dut berriro ikusi ordudanik, uste dut komunera joan eta ezer hartu gabe joan dela, alua!
- Eskerrik asko guztiagatik jauna. -erantzun zion Josepek.

Orduan gutuna ireki eta jada nahiko ezaguna zuten beste izar bat ikusi zuten:



Josepi burua bueltaka hasi zitzaion: taberna, gezia berutz, behekaldea, tabernaren behekaldea, tabernako sotoa!

- Tabernako sotoan dago ezkutaturik hiltzailea! -oihu egin zuen Josepek.

- Barkatu atrebentzia baina taberna honek ez dauka sotorik-esan zuen tabernariak.
- Ni ez nago hain ziur –esan zuen Josepek –Ea mutilak, goazen komuna aztertzer!

Komunean sartu zirenean izugarrizko kiratsa zegoen. Noiztik ez ote ziren garbitu komun horiek? Komuneko tapan erabiltzaileen txukuntasun eza ikus zitekeen, baita zikinkeria hori garbitzeko tabernariaren alperkeria ere. Lurra ezin zen ia ikusi, erabat hautsez zegoen eta Josep garbitasunaren maniatikoa zenez, erratza bat eskatu zuen. Guillem eta Arnau, erratza pasatzen hasi ziren eta berebiziko sorpresa hartu zuten lurrean ageri utzi zutena ikustean.

- Hara, hara, hara. Hemen dugu sotanorako bidea! –esan zuen Josepek.
- Nik ez nekien ezer -esan zuen tabernariak –Sinetsiez zaidazue mesedez.
- Lasai, badakigu ez zarela erruduna. Bestela ez zenigun emango gutun hori-erantzun zion Guillemek.
- Oso burutsua da hiltzailea, baina ezusteko bat emango diogu.
- Ea! Ireki ezazu Arnau –esan zion Josepek lurrean ageri geratu zen tranpila seinalatuz.

Arnauek kasu egin zion eta tranpilla zabaltzean eskailera bat agertu zen. Hiru *mosso d'esquadrak* pistola eskuan zutela sotura jeitsi ziren. Bertan ate bat topatu zuten, kontu handiarekin ireki eta azken gelara, helmugara, iritsi ziren azkenean. Bertan hiltzailea aulki batean eserita zegoen, lasai zirudien. 50 urte inguruko gizon bat zen, oso argala eta aurpegi zimurrekoa. Itxuragatik bakarrik, bere azken urteak ez zirela oso onak izan esan zitekeen, asko sufritu izana ematen zuen eta besoetako orbinek adierazten zuten droga munduan ibilia zela.

- Altxa besoak eta jaurti armak! – oihu egin zuen Josepek.
- Agur! –erantzun zion hiltzaileak. Eta bere buruaz beste egin zuen buruan tiro bat emanez.

Josepek edozer espero zuen baina hiltzaileak bere buruaz beste egitea ez zen bere burutik pasa. Hiltzaileak guztia pentsaturik zeukan, bere “jolasa” hiru hilketekin hasi, poliziaren ikerketarekin jarraitu eta bere suizidioarekin amaitzen zen. Edo agian ez. Guillemek pentsatu zuen, horrenbeste gutun eta gero azken gutunen bat eman behar ziela. Eta zuzen zegoen. Azken gutuna Guillemek aurkitu zuen hiltzailearen koadrodun alkandora urdineko ezkerreko patrikan. Josepek asperen egin zuen, egun lasaia zirudiena bere bizitzako zirrargarriena bihurtu zen, eta gutun honetan idatzirik zegoenarekin amaitzen zen. Hurrengo egunetan ziur aski albisteetan irtengo ziren, komisaldegiko ospetsuek izango ziren eta estatuak plaka bana emango zien. Baina momentu honetan oso nekaturik zegoen eta ohera joateko gogoia zuen, beraz ahots goran eskutitzaren barnean zegoen pergaminoak zioena irakurri zuen:

*Polizia jaunak,*

*Frogan jarri nahi izan zaituztet, orain dela urte batzuk kendu zenidaten guztiagatik. Lehenengo, nire emaztearen hiltzailea ez zenuten aurkitu. Ondoren nire seme maite bakarra gizon berdinak hil zuen, orduan bai, aurkitu zenuten, baita atxilotu ere, baina alde egin zuen. Diruduna zela zioten batzuk, polizia haiek ez ote zuten eroskeria onartu? Seguruenik bai. Bizia hondatu zidaten guztiz. Ondoren, drogetan sartu nintzen penak ahazteko, baina horrela nire hondamendia areagotu besterik ez nuen egin. Azkenean, nire buruaz beste egitea zela modurik onena erabaki dut, baina hil aurretik gaur egungo mossos d'escuadrak frogan jarri nahi nituen. Jakinarazi nahi nien, ez baziren buru eta belarri kasu honetan sartzen, ez bazuten guztia ematen, hiltzailea, hau da, ni aurkitzeko, hildakoak egunetik egunera gehiago izango zirela. Aurkitu banauzue, eskutitz hau irakurtzen ari bazarete, zorionak eta ez utzi berriro emakumeak jotzen dituen edo umeak bortxatzen dituen gizonik, suteak nahita probokatzen dituenik edota kanpotarrei erasotzen dien arrazistarik aske.*

*Agur betirako, Jordi*





■ D. maila • 2. saria

NAROA AMONDARAIN

.....

## Ez pentsatu

–Bihar arte, politta!

Hau esan, ezpainetan musu bat oparitu eta etxerantz abiatu zen.

Berari begira geratu nintzen segundo batzuetan, baina berehala konturatu nintzen oraindik maleta ez nuela behar bezala prestatu, argazki kamera, mugikorra, mp4a eta arropa ez nituela maletan sartu, azken hau oso ondo aukeratu behar nuela kontuan hartuz.

Ama benetan urduri zegoen, ez nintzen inoiz bi astez gurasoengandik aldendu. Banekien aita faltan botako ninduela, hala ere lasaitasunezko egun batzuk igarotzeko aukera ez zuen inolaz ere galdu nahi, asko antzematen zitzaion. Ni, berriz, oso pozik nengoen, bai, baina baita urduri ere. Badakit arrunta dela hau, baina nire urduritasuna ez da arrunta, ez. Buruko mina jartzen zait, ezin dut geldirik egon, ezta jan ere. Gau hartan, hala ere, afaldu egin behar izan nuen, amaren insistentzia zela eta. Afaldu eta gero, gaizki sentitzen hasi nintzen, eta berehala hasi nintzen botaka. Ez zitzaidan inoiz gertatu horrelakorik urduritasunagatik, baina ez nion garrantzi handiegirik eman.

Berehala, bi aste luzez ikusiko ez nituen lagun guztiak agurtu nituen Tuentitik, eta Ekaitzekin hiru orduz telefonotik hitz egin ondoren aitak ohera bidali ninduen. Gutxienez hiru ordu igaro nituen esna, eta begiak itxi baino lehen egin nuen azken gauza ordularia begiratzea izan zen, 1:28 ziren. ZAZPI ORDU IRLANDARAKO!

Amak esnatu ninduen egunero bezala. Berriro ere gaizki sentitzen nintzen. Nahiko haserre nengoen nire buruarekin, juxtu egun hura aukeratu behar izan bainuen gaixotzeko. Jantzi, gosaldtu, begietako marra egin, orraztu eta ordu erdi luzez ama agurtu ondoren, maletak hartu eta autoan sartu nintzen aitarekin. Aireportura iristean Ekaitz aurkitzen saiatu nintzen. Han zegoen, banku batean eserita, musika entzuten, ama ondoan zuela. Ikusi ninduenean, keinu bat egin zidan, nire aita konturatu gabe noski, gurasoek ez baitzekiten irteten ari ginela duela bi urtetatik, eta zer nolako urteak... Ahaztezinak.

Aita agurtu ondoren, eta honek ondo pasatzeko eta gauza arrarorik (alkohola, drogak, erretzea, mutilak) ez egiteko esan ondoren, hegazkinera igo ginen. Ekaitz eta ni leku desberdinetan geunden, eta inork ez zigun lekuz aldatu nahi izan. Beraz, ezin izan genuen ondoan eseri. Halako batean, nire ondoan zegoen mutil betaurrekodun bat, Markel, hitz egiten hasi zitzaidan. Irlandara zihoan hirugarren urtea zen, baina ni baino urduriago zegoela eta ni baino askoz hitzunagoa zela ohartu nintzen. Honek Gipuzkoako 20 pertsona gindoazela Will izeneko herrira esan zidan, eta benetan ondo pasatuko nuela. Gauero gelditzen zirela diskoteka antzeko batzuetara joateko, edateko... Egun batean Berlinera erosketak egitera joaten zirela ere esan zidan. Alde txarra goizero, zortzietan, ingeleseko klaseetara joan behar genuela zen.

Bidaia osoan ez zen isildu, eta Ekaitzek bere eserlekutik jeloskor aurpegiarekin begirutzen zuela ohartu nintzen. Markeli hain arraro begiratzten ari zen mutil goapo hura nire mutil laguna zela esan behar izan nion, hau lasai geratu zedin. Ez ziren oso ondo konpondu bi hauek Irlandan igaro genuen denbora guztian.

Berehala iritsi ginen Dublineko aireportura. Hirurak sarrera printzipalerantz joan ginen, han geratu baikinaren monitore eta gainerako neska mutilekin.

Iritsi bezain laster, elkar aurkeztu ginen, baina horietatik badira inoiz ahaztuko ez ditudan izenak: Aiara, Harkaitz, Naiet, Maider eta Markel. Hauekin igaro nituen nire bizitzako momenturik onenetakoak, oraindik oroitzen naiz, baina egia esan momentu ahaztezinak Ekaitzekin igaro nituen. Lehengo gaira itzuliz, beti elkarrekin joaten ginen leku guztietara. Markel beti gainerakoei barrea eragiten ziena zen, norbait triste zegoen guztietan animatzen zuena. Nirekin zerbait nahi izan zuen, orain ulertuko duzue zergatik ez ziren ondo konpontzen Ekaitz eta bera. Naietekin Berlineko arropa dendetan nola lapurtu ikasi nuen, benetan gaizki pasa nuen dendako alarmak jo zuen egun hartan eta korrika irten behar izan genuenean, baita bertako batzuekin arazoak izan genituen ere, eta Naiet eta hauek borrokan hasi zirenean, azkenean ni ere sartu bainintzen eta hiru egun luzez ez baitziguten utzi bakoitzaren etxeetatik irteten. Maiderrena harrigarria zen, gauetan denok batera irteten ginen horietan benetan ondo pasatzen genuen berarengatik, eta ez ginen goizeko bostak baino lehenago itzultzen etxera. Mutil asko zituen atzetik, baina ez zuen inorekin ezer seniorik nahi izan. Hurrengo egunetan, askok lo hartzen zuten klaseetan, gure artean ez zen inor klase bakar batean ere ez zuena lo hartu. Markelena ere bitxia zen, nahiko itsusia zen baina zerbait bazuen neska guztiak erakartzen zituena, hau ere ez baitzen atzean geratzen neskekin zerbait nahi izatean. Arazoa ondorengoa izan zen: azken egunetan ohartu zen mutilak gusztatzen zitzaizkiola eta Aiara lur jota geratu zen hau jakitean, berarekin baitzebilen momentu horietan. Aiarak izen euskalduna izan arren, ni nengoen etxekoen alaba zen, eta beraz, Irlandakoa zen. Izen hau bere aita euskaldunak jarri zion. Bera izan zen, zalantzarik gabe, nire lagunik onena, eta jarraian azalduko dizuedan istorioak hobeto ulertzen lagunduko dizue.

Etxera itzultzeko bi egun eskas falta zirela, Aiarak zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan, azkenaldi honetan ez baininduen oso ondo ikusten. Nik, askotan goragaleak sentitzen nituela esan nion. Honek, larritu aurpegiarekin begiratu ninduen, eta ea Ekaitzek eta biok “hori” egin al genuen galdetu zidan. Ni lotsatu egin nintzen hasieran, baina ondoren gertatzen ari zenaz ohartu nintzen: haurdun egon nintekeen. Ondorio prezipitatuak atera baino lehen, Aiararekin farmazia batetara joan nin-

tzen. Saltzaileak aurpegi txarraz begiratu gintuen, baina ez zitzaidan batere axola izan, inoiz baino urduriago nengoen, ezin duzue imajinatu zer puntutaraino.

Eta hantxe nengoen, froga eginda, ea zer kolore irteten zen itxaroten, Aiararen ondoan. Beldur nintzen, izugarria zen barruan sentitzen nuena. Momentua iritsi zen. Ez nintzen gai begiratzeko, ezin nuen, baina orduan Aiarak argi utzi zidan gauza bat, noizbait begiratu beharko nuela eta hobe zela orduan jakitea hilabeteak itxaron beharrean sabela irteteko. Arrazoa zuen, eta eskua begietara eraman nuen. Mundua gainera erortzen ari zitzaidala iruditu zitzaidan. Arrosa zen kolorea, ez nuen zalantzarik, nire barruan umetxo bat nuen.

Begiak malkoz betetzen ari zitzaizkidala sentitu nuen, eta eztarrian korapilo handi bat. Aiarak berehala besarkatu egin ninduen, eta ni negar zotinka hasi nintzen. Ezin nuen sinetsi, ezin nuen. Ezin nion Ekaitzi ezer esan, zer pentsatuko zuen? Ez, esan egin behar nion, banekien nire ondoan egongo zela. Aiara hitz egiten hasi zitzaidan:

- Lasai, lasai... badakizu beti zurekin egongo naizela, baita Ekaitz ere, eta zure gurasoak, hartzen duzun erabakia hartzen duzula ere.
- Ez, nire gurasoak ez, ez dituzu ezagutzen, ez dakizu nolakoak diren.
- Ulertuko dute...
- Ez! Ez dute ulertuko! Ez dakizu nolakoak diren, ez zidaten inolaz ere barkatuko.- Hau esan orduko berriro ekin nion negar egiteari.
- Baina Ekaitzek bai, lagunduko dizu, gu denok bezalaxe.
- Bai, badakit baietz.- Eta hitz hauekin benetan lasaitzea lortu nuen.

...

- Ekaitz, zurekin hitz egin behar dut, oso garrantzitsua da. -Horrelaxe jakinarazi nion mugikorretik.
- Behar beharrezkoa da? Harkaitzekin nago... Ezin du itxaron?
- Ez, benetan etorri egin behar duzu, parkean nago.
- Orain noa...

Hamar minutuz itxaron ondoren, iturria zegoen iskinetik hurbiltzen ikusi nuen. Burua altxa eta nola nengoen ikusirik, benetan larritu aurpegia jarri eta besarkatzera etorri zitzaidan.

- Zer gertatzen zaizu, politta? Benga, ba, kontatu.
- Zaila da.
- Markelekin zerbait?
- Ez, ez da horrelako ezer, okerragoa. –Hau esan eta berriro ere negarrez hasi nintzen. Berak indarrez besarkatu ninduen. Horrela, momentu horretan geunden bezalaxe egotea gustatuko litzaidake beti, bere arnas hotsa besterik entzuten ez nuela, eta gogoz besarkatzen ninduela. Besterik ez nuen eskatzen. Baina esan egin behar nion. Ezin nuen horrela utzi, gezur batekin.
- Haurdun nago
- Zer!?
- Entzun duzuna.
- Benetan? –Nire aurpegia ikustea besterik ez zuen behar izan benetan ari nintzela jakiteko. Segundo batzuetan beldurra besterik ez nuen ikusi bere begietan, baina bat-batean, lasaitu egin zen eta bere besoekin besarkatu ninduen berriro, lehen baino indar handiagoaz.
- Ez dut haurra galdu nahi.
- Ez duzu horrelakorik egingo, lasai.
- Eta zer esango diegu gurasoei?
- Zertarako esan? Ez zaizu leku hau gustatu?
- Askoo...
- Eta orduan zergatik ez gara geldituko bertan? –Bere begi berde zinezkoei begiratzean benetan ari zela ulertu nuen. Bai, banekien erokeria bat zela, eta zer? Nahi genuena zen, zergatik ez genuen egingo? Zer pentsatuko zutenagatik?
- Arrazoia duzu. Maite zaitut.

- Nik ere bai zu. –Hau esan eta musu batez amaitu genuen elkarriketa.

Bi egun barru gindoazen, eta, beraz, zerbait pentsatu behar genuen egun hartan gu ez aurkitu ahal izateko.

Hurrengo egunean Ekaitzek deitu egin zidan, bera zegoen etxeko semeari motoa uzteko eskatuko ziola esanez, eta horrela, alde egin ahal izango genuela.

Pentsatze hutsarekin benetan hunkitu egiten nintzen. Bai, gurasoak eta lagunak faltan botako nituen, egia zen, baina banekien ez nintzela batere zoriontsu izango itzuliz gero. Ez zidaten utziko umea izaten, eta ez zidaten lehen begiratzin ninduten bezala begiratuko. Gainera, Ekaitzengatik sentitzen nuenak beste guztiak ez axola izatea eragiten zuen. Pentsamendu hauek buruan nituela oheratu nintzen.

Egun hartan, sentimendu askoren nahaste batekin esnatu nintzen. Batetik, kezka handiak nituen, baita jakinahia ere, zer gertatuko zen momentu hartatik aurrera pentsatzean. Bestetik, tristura handia sentitzen nuen, berriz ikusiko ez nituen pertsona horietaz oroitzean, baina azken sentimendua Ekaitzenganako sentitzen nuena zen, eta hau benetan handitzen zen nigatik egingo zuenaz pentsatzean.

Bertako lagunekin egoteko aprobeztatu nuen eguna, baina ez nien ezer esan, galdera asko egingo baitzizkidaten, eta horietako asko gelditzen saiatuko lirатеkeelako. Gainera, besarkadekin eta abar banekien lur jota geldituko nintzatekeela. Beraz, asko kostatu arren, ez nien ezer esan.

Gaueko bederatzieta jaso behar gintuzten Lond izeneko parkean. Ihes egiteko denbora izateko, zortzieta nire bila etorri zen motoan. Irribarre polit bat oparitu ondoren, bere atzealdean igotzeko seinalea egin zidan. Kasu egin nion, jakina, eta izugarrizko abiaduran abiatu ginen.

Ordu batzuk generamatzan errepidean, eta Ekaitz nekatuta zegoen. Horregatik, itsaslabar txiki batean geratu ginen, eta belarretan etzanda, hitz egiten hasi nintzen, bi ordu barru itzuli behar genuen errepidera:

-Badakizu? –eta berehala eten ninduen. –Orain ez, denbora asko izango dugu ondoren ere, lasaitu.- Hau esanda, benetan lasaitu nintzen, eta lo hartu nuen.

Begiak zabaldu nituenean, pertsona batzuk hitz egiten ikusi nituen. Nire ondoan hirurogei bat urteko gizon bat ikusi nuen, eta honen parean, poliziaren uniformearekin jantzitako beste bi gizon, Ekaitzekin hitz egiten. Ez nekien zer gertatzen ari zen, Ekaitzek ez zuen larritu itxura, baina halako batean, oihu egin zuen:

– Korri, igo motora, oraintxe!

Motora iritsi nintzen berehala, baina bera ordurako motoa martxan jartzen ari zen. Ez nien hiru poliziei begiratu ere egin, eta inoiz baino abiadura handiagoan abiatu zen, ni igotzen ari nintzela ikustean. Urdu-ri zegoen, motoa martxan jartzeko moduan antzematen zitzaion, eta ni ondo eserita egon gabe abiatu zen.

Ez nengoen ondo eutsita, eta izugarrizko kurba ikusi nuen gure aurrean. Oihuka hasi nintzen gelditzeko eskatuz. Baina ez zidan entzuten, oso urduri zegoen. Orduan gertatu zen. Erortzen ari nintzela sentitu nuen, eta Ekaitzi eusten saiatu nintzen, baina gertatu behar ez zena gertatu zen.

Oroitzen dudan azken gauza da hori. Ospitale batean nago, eta umea galdu dudala esan didate. Benetan gaizki sentitzen naiz, ume hori zen nahi nuen gauza bakarra, bizitzeko gelditzen zitzaidan guztia bera eta Ekaitzen ondoan igarotzea. Ez dakit non dagoen Ekaitz. Ziu-rrerik eraman egin dute. Egia esan ez dakit zer pentsatu. Ez dakit zer gertatu zaion berari, eta ez dakit zer gertatuko zaidan niri hemendik aurrera.

Hala eta guztiz ere badakit ez dudala inoiz biziko bizitza denboraldi honetan bizi izan dudan bezala, eta inoiz ez naizela izango hain zoriontsu.





■ E. maila • **1. saria**

ENERITZ IRAOLA

.....

*“Oroimena garela akordatzen naiz,  
oroimena ala ia ezer ez”*

**J. Sarrionandia**

## Ahaztu ez daitezzen

Goizaldeko ordu bata. Taberna jendez gainezka. Giroa bero. Lurrina kristaletan. Eztarrian seigarren zuritoaren arrastoak. Eta gaur hamazazpigarren aldiz esaldi hori duzu buruan. Begiak behin eta berriz itxi dituzu. Garagardoari beste trago bat eman eta irribarre inozo bat eskaini diozu pareko lagunari. Ezerk arduratuko ez balizu bezala, barrena jaten dizun ezer izango ez bazenu bezala. Laguna ez da ezertaz ohartu. Itxurak egiten ikasi duzu dagoeneko. Ez zara gogoratzen noiz hasi zinen aurpegia iluntzen dizkizuten kezka irribarre inozoekin mozorrotzen.

Sukaldean sartu eta zure oinen oihartzuna besterik ez duzu entzun. Erlojua mutu geratu dela ohartu zara. Orratz txiki gorriak mugitzeari utzi dio. Minutuek irentsi dituzte segundoak. Eta mutu geratu zara zu ere, erlojuaren antzera. Orratzari begira. Isiltasunak barrena kolpatzen

dizun bitartean. Eta esaldiak dantzan hasi dira berriro ere zure buruan, gelditzeko asmorik gabe. Duela hiru hilabete eta hamabost egun ulertu zenuen esaldi horien atzean ezkutatzen zena. Orduz geroztik, ezin izan duzu burutik kendu. Baina lehenago hasi zen dena, hasieran ohartu ez bazinen ere. Aspalditik zinen esaldi horren subjektua.

Goizeko zortziak eta hiru minutuan Iturribide kaleko ertza zeharkatu eta kafetegira sartzen zinen egunero. Lanera sartu aurretik kafe dosiaren beharra zenuen. Kafetegian zerbitzariak gain, hiru lagun egoten zineten. Kafea eta croissanta laneko txostenekin nahasten zituen gorbataaduna, iskina batean esertzen zen agurea eta zu. Beste inor ez. Egunero elkar ikustearen ondorioz, ezezagun ezagunak bihurtu zineten.

Kafetegiaren erdialdean esertzeko ohitura zenuen. Bi gizonetzkoen artean haiekin hitz egiten ez zenuen arren. Baina egun batean, agurea eseri ohi zen iskinetik hurbil dagoen mahai batean eseri zinen. Agurea iritsi zenean, betiko txokoan eseri beharrean zure mahaian eseri zen. Ez zenioten ezer esan elkarri. Nahikoa izan zen begirada bat. Zure kafea hartu eta buruarekin adio eginez irten zinen kafetegitik. Bitxia iruditu zitzaizun agurea zure mahaian esertzea. Bitxia iruditu zitzaizun alboan eduki eta berarekin ez hitz egitea. Baina are bitxiagoa iruditu zitzaizun, hitz egiteko beharrik ez sentitzea. Eguraldiari buruzko elkarriketa absurdo bat edukitzeko beharra ez sentitzea. Gustura egon zinen aldameneko aulkian norbait esertzen zela ikusita.

Goizero goizero hasi zineten erritual berbera egiten. Goizeko zortziak eta sei minutuan kafetegiko mahaian esertzen zinen, agurearen iskinetik hurbil zegoen horretan. Agurea zortziak eta hamarrean iristen zen eta zure mahaian esertzen zen. Batak besteari begiratu, kafearen zaporea eztarrian eta hitzik ez. Biak isilak izanik, aldendu egiten zenuten mututa-suna elkarrekin zeundetenean. Elkarri konpainia egiten zenioten. Goiz horietako batean xaharkitutako koaderno bat utzi zuen aitonak kafearekin batera mahai gainean. Koadernoari begiratu bat bota nahi zenion, zer zen galdetu nahi zenion, baina ez zinen ausartu. Ez zenuen bere intimitatea urratu nahi. Bederatzi egun iraun zizun jakin-minak. Bederatzi egunez, koadernoak ikusi eta zer ote zen galdetzerak ausartu gabe joaten zinen lanera. Bederatzigarren egunean, kafetegitik irteteko bigarren pau-

soa eman zenuenean ahots batek, *idazlea nintzen* esan zizun. Burua jiratu eta agurea koadernoan eskuan zuela zuri begira ikusi zenuen. Irribarre bat atera zitzaizun eta inoiz baino gusturago joan zinen lanera.

Idazlea nintzen. Bi hitz horiek izan ziren ordurarteko isiltasuna apurtu zutenak. Beste hitz guztiak jarraian etorri ziren. Peru. Hala izena zuela esan zizun. Ez zineten elkarriketa luzeen zaleak. Ez zenituzten ezezagunek eduki ohi dituzten elkarriketak edukitzen. Isiltasuna ez zen deserosoa zuentzat. Hitzik gabeko elkarriketa zen zuena, ezin zitekeen isiltasuna bezala definitu. Hala ere, Peruk memoriaren irratia martxan jartzen zuen maiz eta urtetan barrenean gordetakoa kontatzen zizun. Xaharkitutako koadernoko orri bakoitza zure aurrean irakurriko balu bezala.

Hala jakin zenuen gaztetan hasi zela idazten. Noizbait bete nahi zituen amets guztiak koaderno batean idazteko ohitura zuen. Futboleko jokalaria izan nahi zuela idazten zuen batean, astronauta bestean ... eta gauetan amestutakoak ere bertan idazten zituen. Lehenengo koaderno hartako orriak bete zituen eta beste koaderno bat erosi ere bai. Hamar urte zituenean gurasoak galdu zituen, ama gaixorik hil eta hila-bete beranduago aita hil baitzitzaion tristuraz. Anaia zaharra bakarrik geratzen zitzaion. Haur bat izatetik heldu izatera igaro zen halabeharrez. Ametsak aldatu zitzaizkion orduan. Bere sentimenduak eta garai hartako egoera politikoak ozen oihukatzen uzten ez zizkionak idazten hasi zen galtza motzak galtza luzeengatik aldatzeko garaia iritsi zitzaionean. Askatasunarekin amets egiten zuen, bizimodu hobe batekin ... eta gauetan ezkutuan, koadernoan idazten zituen guztiak. Umetan bezala egi bihurtuko zirela pentsatzen zuen. Amets horiek ez ziren koadernotik haratago joan. Gerrak lapurtu zizkion amets guztiak, baita amets egiteko ahalmena ere. Hamabost urtez egon zen kartzelan eta koadernoan, bera bezalaxe, itzalean geratu zen. Kartzelatik irtendakoan ametsak baino zerbait gehiago galdu zuela ohartu zen. Ez zuen espero zuen ongi etorririk izan. Bakardadea zegoen bere zain kartzelako atarian. Hasieran kosta egin zitzaion bidelagun berria onartzea. Zakarregia zen berarekin, entzun nahi ez zuena esaten zion belarrira. Zalantzak, iluna, tristura, egindakoa, egin ez zuena, egiterik izango ez zuena oihukatzen zion sarritan. Azkenean, hala ere, ohitu zen bakarrik egotera.

Bakardadea onartzera iritsi zen. Ez zuen inoren beharrik sentitzen; edo hori zen kartzelatik irten berritan berak sinetsi nahi zuena.

Koadernoia soinean eramaten zuen beti, baina ez zen bertan idazteko gai sentitzen. Berrogeita zazpi urterekin irten zen kartzelatik. Aurpegian ximurrak atera eta ilea ere urdindu zitzaion, baina idazteko gaitasuna ez zen bueltan etorri. Hirurogeita hamabi urte bete zituen egunean hasi zen berriro ere idazten. Kafetegian lehen aldiz ikusi zintuen hartan. Lerro bakar bat idatzi zuen: *Badirudi bakardadeak badi-tuela lagun gehiago*. Eta esaldi horrek eman zion berriro ere idazteko adorea. Hogeita bost urtean gertatutakoak idazten hasi zen gero. Gauak igarotzen zituen lo egin gabe. Lo egiten bazuen guztia idazteko astirik ez zuela izango iruditzen zitzaiolako. Idaztea obsesio bihurtu zen berarentzat. Zurekin egoten zenetan bakarrik ez zuen boligrafoa behatz artean izaten. Ez zuen jakiten askotan gauzak benetan gertatu ziren bezala idazten zituen. Ez zekien berak oroitzen zuena noraino zen bere imajinazioaren ondorioa. Ez zekien idazten zuena ez ote zen erre-alitatea gustuko ez eta bere buruan izaten zituen amets horien ondorioa. Bere buruan erreala eta irrealaren mugak ez zuen garrantzirik. Idatzi egiten zuen, idatzi etenik gabe. Idatzi bizirik jarraitzen zuela konturatzeko. Idatzi hitza ostu diotenaren antzera. Idatzi eta idatzi. Idazten zuenak zentzurik ez bazuen ere. Sarritan idazten zuen zuri buruz ere. Eta zuri buruzko aipamen bat egiten zuen bakoitzean ez *naiz bakarra* idazten zuen orriaren azken lerroan.

Zuk ere kontatu zenizkion zuri buruzko istorioak. Zure ezagunen baten edo lagun baten ahotan jartzen zenituen sarritan zure sentimenduak. Peruk bazekien aipatzen zenituen lagun eta ezagunak ez zirela existitzen. Inori aitortu ez zenizkionak esan zenizkion berari. Kontatu zenion, haurra zinenean zure panpinekin bakarrik jolastea gehiago gustatzen zitzaizula lagunekin parkean egotea baino. Esan zenion, lagunekin zeundenean bakarrik sentitzen zinela sarritan. Aitortu zenion egiazkoak ez ziren hitzorduak asmatzen zenituela ingurukoei norekin gelditu bazenuela erakusteko. Kontatu zenion alde zaharreko kaleetatik galtzea gustuko zenuela inora iristeko helbururik gabe. Galdurik egoteko sentsazioa gustuko zenuela. Baina aitortu zenion, batzuetan bakar-

dadeak nahi ez zenituen bisitak egiten zizkizula. Bakardadeari ihes egin nahi izaten zeniola, baina bera beti zela zu baino azkarragoa. Beti hartzen zizula aurrea. Bakardadea zain zenuela jakindakoan oinak geldirik geratzen zitzaizkizula izu eta porlanezko ontzietan sartuta. Berak buruarekin baietz esaten zizun. Baietz, entzuten zizula. Baietz, ulertzen zuela zer esaten zenion. Baietz, berari ere bakardadeak bisitak egin zizkiola aldeztu aurretik hitzordurik finkatu gabe. Elkarrekin egoten zirenen berrogeita hamar minutuetan benetako lagun batekin zeundela sentitzen zenuen.

Neguko goiz hartan, normalean baino indartsuago zebilen haizea. Hotza hezurretaraino sartzen zen. Zortziak eta sei minutuan betiko ertza gurutzatu zenuen eta kafetegian sartu zinen. Erlojuari begiratu zenion hogeita hamar aldiz gutxienez. Kafea hoztu zitzaizun. Eta aldameneko aulkia beste behin ere hotza zegoen. Peru ez zen kafetegira etorri. Hurrengo goizean ere, zortziak eta hamar minutuan ez zen inor sartu kafetegiko atetik. Hurrengo egunean ere, zure aldameneko aulkia hutsik geratu zen. Hamahiru gau eta hamalau egun. Hamalau kafe hotz. Hamalau aldiz joan zinen lanera Peruren berririk jakin gabe. Larritu egin zinen. Baina ez zenekien nora jo. Ez zenekien non galdetu. Ez zenekien Peruri zer gertatu zitzaion. Zuena ez zen derrigorrezko hitzordu bat. Baina azken bi urte, bost hilabete eta bederatzi egunetan ez zenuten inoiz hutsik egin. Lantokirako bidean egunkari bat erosi zenuen, goizeko hitz gabezia nolabait betetze aldera. Titularra gainetik irakurriz orriak pasa zenituen. Burua ez zenuten egunkarian jarria. Orri bat aurrera. Beste bat gero. Eta halako batean aurpegi ezagun bat parez pare. Haizeak gogor jo zuen une horretan. Egunkariko orriak airean atera ziren. Hegan joan ziren. Orriei begira geratu zinen begiak malkoz betetzen zitzaizkizun bitartean. Aurpegi ezagunak esku artetik ihes egiten zizunean, ohartu zinen argazki hura ez zela joan zen bakarra. Peru ere joan zela konturatu zinen. Betiko joan zela oihukatzen zizun egunkariko hileta argazkiak.

Elizara sartu eta atzeko ilaran jarri zinen. Aulki huts ugari zeuden tartean. Lehenengo ilaran Peruren anaia zegoen eserita. Elizako gazteena zinen zu. Ez zenituen apaizaren hitzak entzun. Peruren hileta argazkia

zenuen buruan uneoro. Eta parean egurrezko kutxa. Organoan jotako abestien nota grabeak bakarrik entzuten zenituen. Urrunean apaizaren hitzak eta zure barnean isiltasuna. Garrasi egiteko gogoia jartzen zizun isiltasuna. Baina malkoak ez zitzaizkizun begietara etorri. Ez zenuen sinesten. Ez zenuen sinetsi nahi. Kafetegian ez zen berriz hizketaldirik egongo. Ordubete inguru iraun zuen mezak. Amaitu zela ohartu zinen jendea kalerantz mugitzen hasi zelako. Zalaparta horrek esnarazi zintuen. Zuk ere oinak kalerantz herrestan eraman zenituen. Elizako atarian Peruren anaiari doluminak ematera joan zinen eta azaldu zenion nor zinen. Ezagutzen zintuen. Peruk zuri buruz hitz egin zion noizbait. Garrantzitsua sentitu zinen orduan. Hitz egiten ari zinetenean, kazadora ireki eta barrutik atera zuen hainbestetan ikusita zenuen objektua. Goizero mahai gainean ikusia zenuen objektu hori. Denborak xaharkitu zuen koadernoak eskaini zizun. Anaiak hala esan omen zion behin: *egunen batean zerbait gertatzen bazait emaiizu koadernoak nire lagun bati, nabarituko duzu nor den*. Eta jakin zuen. Nabaritu zuen zu zinela bere anaiak esandako lagun hori. Altxor txiki hura eskuetan hartu zenuen unean Peru zure alboan sentitu zenuen. Bere aurpegiko ximurrez gogoratu zinen. Bere irribarre erdiaz gogoratu zinen. Urteetako zamak irribarrearen beste erdia kendu ziola pentsatu izan zenuen beti.

Egunero mahaiaren gainean jartzen zenuen koadernoak, baina ez zenuen orri bakar bat ere irakurtzeko adorerik. Goizero goizeko zortziak eta sei minutuan zeharkatzen zenuen Iturribide kaleko ertza. Perurekin egoten zinen kafetegira sartu beharrean aurreko kafetegira joaten zinen. Bertatik ikusten zenuen Perurena eta zurea zen txoko hura. Zuen mahaia. Zuen aulkiak. Baina kafetegiko kristalak ikuspegia lausotzen zizun. Edo agian begietako malkoak izango ziren irudi hori lausotzen zutenak. Kafea hozten zitzaizun goizero. Kafetegira joate hori aitzakia bat besterik ez zen. Bizitzako une horiek gogoratzeko. Kristalaren beste aldetik ikusle huts baten gisara bizitako garai horiek ikustera joaten ziren egunero. Zinemako film berbera hamaika aldiz ikusi zuen ikusle bihurtu zinen.

Goizeko zortziak eta hamalau minutuan pareko kafetegitik zuen txokora begira ari zinenean, zure barne mundu horretatik aterarazi zintuen

zerbait gertatu zen. Emakume bat kafetegira sartu eta zuen txokorantz abiatu zen. Peruren aulkian eseri zen. Egun hartan filmak ez zuen betiko istorioa kontatuko. Ez zituen betiko protagonistak izango. Leihoaren bestaldean zegoena ez zen zuk nahi zenuena. Koadernoari begira geratu zinen orduan. Sudur ingurura gerturatu zenuen koadernoan. Bere usaina nabaritu zenuen. Koadernoko tapa lakarra zen, Peruren eskuak ere horrelakoak izango zirela pentsatu zenuen. Lehenengo orrialdea ireki zenuen eta Peruk hitz egin zizun berriro ere belarri ondolan. Pareko kafetegiko mahaian ikusi zenuen zure burua. Peru aldame-neko aulkian eta lehenengo eguneko begirada hura. Bien arima bakar-tiek elkar ezagutu zuten une hartakoa.

Peruk gauak eta egunak eman zituen egunkaria idazten. Zuk orain gauak eta egunak ematen zenituen egunkaria irakurtzen. Ez zenuen begirada koadernotik aldentzerik, ez zenuen horretarako gogorik. Kartzelatik irten ondoren egindako saiakerak ziren lehen orrialde horietan zeudenak. Orriak zirriborroz beteta zeuden. Behin eta berriz, idazten saiatu eta ezin duenaren frustrazioa nabari zen. Lehendabiziko hamar orrietan, hitz solte batzuk bakarrik irakurri zitezkeen. *Gaua, bakarrik, poza, nor...* baina ez zegoen beste ezer ulertzerik. Ezin zen istorio bat sortu horretatik. Irakurketa bakarra zuten hango zirriborroek. Idatzi nahi eta ezin zuenaren tristura.

Hamar orrialde zirriborrotan. Hamar orrialde horien atzetik, lau orrialde zuri eta hurrengo orrialdean letra dotorez data bat eta esaldi bat zeuden idatzita. *Badirudi bakardadeak badituela lagun gehiago.* Hori idatzi zuen datari begira geratu zinen. Ezaguna egin zitzaizun data hori. Ohartu zinen nor zen bakardadearen beste lagun hori. Amorruez koadernoan itxi zenuen. Eta pentsatu zenuen Peruk ez zuela zuri buruz hori idazteko eskubiderik. Zer jakingo ote zuen ba berak? Baina zuri buruz zerbait gehiago idatzi ote zuen jakin nahi zenuen. Jakin minak gerra irabazi zion amorruari. Horregatik ireki zenuen berriro ere koadernoan eta irakurtzen jarraitu. *“Neska beti kafetegiaren erdian esertzen da. Ni etortzen naizenerako berak kafea eskatuta edukitzen du. Gaur hala ere, ez da betiko mahaian eseri. Nire mahaitik hurbil dagoen batean eserita ikusi dut kafetegiko atea zeharkatu dudanean. Urduri zegoela*

*iruditu zait. Ez dakit oso ondo zerk bultzatu nauen egin dudana egite-  
ra, baina bere alboan eseri naiz. Aulkian eseri orduko lasaitu egin da.  
Bere alboan esertzea nahiko zuen. Ez dugu hitz egin. Ez dut beharrik  
sentitu. Gustura egon naiz bere konpainia hutsarekin.” Orriaren azken  
lerroan ez naiz bakarra esaldia zegoen idatzita.*

Bere ideiak etorri ahala idazten zituela ohartu zinen. Inolako orden  
kronologikorik gabe. Burura etorri ahala botatzen zituen orri gainera.  
Kartzelan jasandakoez hitz egiten zuen eta bat-batean *“Gaur normale-  
an baino tristeago zegoela iruditu zait. Irribarre erdi bat eskaini dit.  
Nire irribarrearen antza du bereak. Tristeia da hain gazte izanda hiru-  
rogeita hamabi urte dituen agure baten irribarre berbera izatea. Ez  
diot galdetu zer gertatzen zaion, hitz egin nahi badu hitz egingo du.  
Bihar koaderno hau kafetegira eramatea erabaki dut. Ez diot koaderno-  
ari buruz ezer kontatuko. Mahai gainean utziko dut. Besterik gabe.”*  
Eta orriaren azken lerroan, *“ez naiz bakarra”* irakurri zenuen.

Umetako bere ametsak irakurri zenituen beste egun batean. Kafete-  
gian kontatu zizkizun guztiak eskuz idatzita zenezuzkan orain eskuen  
artean. Amets horien ondoren tartetxo bat utzi eta zuen arteko harre-  
manaz idazten zuen. *“Koaderno kafetegiko mahai gainean jartzen  
dudan zortzigarren eguna da. Koadernoari begira geratzen da beti  
hasieran eta gero ere zehar-begiratuan aritzen da. Bere jakin mina  
piztu dut. Bihar esango diot idazlea nintzela. Bihar hasiko naiz nire  
istorioa kontatzen. Begiradekin hitz egin beharrean hitzak jarriko diz-  
kiet nire oroitzapenei.”* Eta beste behin ere ulertzen ez zenuen esaldia  
zegoen orriaren amaieran idatzita *ez naiz bakarra*.

Negar asko egin zenuen koaderno lehenean aldiz irakurri zenuenean.  
Orain ere negar egiten duzu. Hala ere, tarteka poztasun txikien iturri  
bihurtzen da koaderno. *“Lanera joateko ordua iritsi zaio. Kafetegiko  
aterantz abiatu da, azken minutura arte itxaron dut eta esan diot idaz-  
lea nintzela. Burua jiratu du eta koaderno eskuetan dudala ikusi nau.  
Irribarre eginez berari begira geratu naiz. Berak ere irribarre egin dit.  
Irribarre ia osoa izatera iritsi dela esango nuke.”* Barrez hasi zinen  
orduan. Kafetegiko ispiluak aspaldian ikusia ez zenuen irudia itzuli  
zizun. Zu zinen eta barrez zeunden, ia irribarre oso batekin.

Jarraian zetozen beste testuetan tarteka zuri buruz idazten bazuen ere, bere istorioa kontatzeko ahalegin berezia egin zuela nabaritu zenuen. Gertakariak bata bestearen atzetik, presaka idazten zituen. Jada beranduegi dela dakienaren ziurtasunez. Herio kale ertzean zain daukala uste duenaren larritasunez. Bere gogoeten artean zati honekin egin zenuen topo. *Idaztea da norbait nitaz gogoratzeko daukadan bide bakarra. Bakardadeak ez dauka oraingoz gogoratzeko ahalmenik. Idazten badut bakarrik utziko dut nire arrastoa hemen. Noizbait bizi izan naizenaren arrastoa. Bestela nor gogoratuko da nitaz? Idatzi egiten dut nitaz ahaztu ez daitezen.* Aspaldian irakurtzen ez zenuen esaldia irakurri zenuen orriaren amaieran. *Ez naiz bakarra.* Hiru hitz horiek letra larriz irakurri zenituen. Hiru hitz horien gainetik boligrafoa behin eta berriz pasa zuela nabaritu zenuen. Hiru hitz horiek zuri zuzendutakoak zeudela ohartu zinen. Hiru hitz horien atzean irakur litekeena zure egungo obsesio bihurtu da.

Sukaldetik ohera joan zara. Loak barrena baretuko dizula espero duzu. Azken hilabeteetan aurrera egiteko ahalegin ugari egin dituzu. Alferrik izan dira guztiak. Barrenean iltzatuta geratzen diren esaldiek beste guztiak baino indar handiago hartzen dute sarritan. Ohean etzanda, zure arnas hotsa besterik ez duzu entzun. Guztia isilik dago. Gauero kalean kontzertua eskaintzen duten katuak ere mututu dira. Ez dago zaratarik. Ez dago inolako soinurik. Hitz batzuen oihartzuna besterik ez. Mesanotxeko argia piztu duzu. Goizaldeko hirurak dira. Badakizu ez dela egin behar duzuna egiteko oso ordu normala. Baina bakarrik geratzeko beldurak ez darama erlojurik soinean. Izuak ez du ordutegirik. Ohetik jaiki zara. Itsu mustuan zoaz aurrerantz. Eskua luza-tu duzu eta armairuko txoko batetik Peruren koaderno hartu duzu. Mahai gaineko boligrafoa hartu eta eskuen artera daramazu. Boligrafoa orriaren gainean jarri duzu eta zarata txiki bat ateratu du. Soinu horrek ordurarteko isiltasuna apurtu du. Azkenean ulertu duzu koaderno hartako esaldi guztien esanahia. Zure barneko paretak kolpatzen zituzten esaldiak isildu egin dira. Eta idazten hasi zara zu ere. Idazten. Etorkizunean zutaz ahaztu ez daitezen.





■ E. maila • **2. saria**

SAIONARA BARRENA

.....

## Kolore guztietako betaurrekoak

Nik ez dakit zer izango naizen handia naizenean!

Naroak bai. Naroak badaki. Andereñoa izango dela dio. Oierrek ere badaki, bulego batean egingo duela lan esaten baitu. Aimar, futbolaria izango omen da. Eneritz, aberatsa. Aitziber, ama, eta Xanet berriz, aita. Eta ni? Nik ez dakit zer izango naizen handia naizenean!

Andereñoa izateko...

Andereñoa izateko asko jakin behar da! Gureak behintzat ia den-dena daki, eta ez dakienean ere, badaki non eta nori galdetu behar diogun. Horrelakoetan... "hobeto etxean galdetzen baduzu maitia" esaten digu. Nik gauza asko dakizkit. Gauza asko dakizkit, bihotzaren begiekin begiratzan dudanean. Adibidez, noiz dagoen lagun bat triste edo haserre, eta baita zer egin behar dudan alaitzeko. Baina garunaren begiekin begiratu behar dudanean, orduan hasten dira kontuak eta komeriak! "*Maitek sei puztarri zituela eta lau galdu dituela, eta ea zenbat geratzen zaizkion*". Maite gaixoa! Eta axola duen gauza bakarra zenbat geratzen zaizkion al da, ala? Eta Maite gizajoa, hainbeste puztarri galdu ostean, zein triste egongo ote den, ez al zaio inori axola? Niri bai, horregatik nire ezingo nintzateke andereñoa izan.

### Bulego batean lan egiteko...

Bulego batean lan egiteko denbora luzean eserita egotea gustatu behar zaizu eta niri, hori, asko kostatzen zaidan kontua da. Gelan ere ahalegin handia egin behar izaten dut hainbeste denbora eserita egoteko. Behin edo behin andereñok aulkia ere kendu izan dit gozo-gozo esanez, "zutik egotea atseginago baduzu...". Zutik egotea atsegin dut, bai horixe!, baina hori ez da nire errua. Aitonak dio nire ipurdia ez zela jaio eserita egoteko ezta nire oinak geldi!

### Futbolaria izateko...

Futbolaria izateko, gutxienez futbola atsegin beharko duzu. Nire bizitza osoan behin baino ez naiz egon futbol partida batean. Aita eta bere lagunekin joan nintzen. Zerbait ikasi nuen egun hartan. Orduan ulertu bainuen zergatik duten hain atsegin gizonezkoek futbola. Futbolak badu gauza on bat. Gogoko duzun ekipoak gola sartzen badu, lagunak besarkatu, musukatu eta nahi baduzu negar malkoren bat ere atera daiteke zure begietatik, eta inork ez du barrerik egingo, ezta ezer esango gizona edo aita izanik ere. Baina... golen poztasunak ez du betirako irauten, eta beti dago norbait irabioka eta arbitroari direnak eta ez direnak esaten. Nik ez dut zertan futbol partida batera joan lagunak besarkatzeko edota musukatzeko, eta gainera nahi dudan tokian negar egitea gustatzen zait. Eta irabioak ez ditut batere gustuko. Horregatik ez dut futbola atsegin.

### Aberatsa izatea...

Aberatsa izatea ez da ideia txarra. Aberatsek diru asko izaten dute eta nahi duten guztia eros dezakete. Nik diru asko izango banu, badakit zertan gastatuko nukeen.

Adibidez, Aitonari belaun berria erosiko nioke, elkarrekin saltoka eta jolasean aritzeko. Amonari, berriz, pomada on bat bere eskuetako atzamar okerrak zuzentzeko. Hartara kartetan gabiltzanean ez litzaioke hainbeste kostatuko kartak nahastea. Aitari, bere gustuko lan bat oparituko nioke, hainbeste ikasi beharrik izan ez dezan. Eta amari takoidun

zapata berriak, lehengoan moztarotara jolasten aritu nintzen nahi gabe apurtu nitzionak baino politagoak...

Baina nola demontre izango naiz aberatsa ez baldin badut dirurik? Dirua izateko lan asko egin beharko dut eta ... nola egingo dut lan ez baldin badakit zer izango naizen handia naizenean?

Ama izatearen aukera...

Egia esan ez dut sekula horretan pentsatu. Aita ez izatean, bai. Hori nekez! Nekez izan naiteke aita, nire izena Arane delako eta ni, neska naizelako!

Arane naiz eta zortzi urte, bi hilabete eta hiru egun bete berri ditut. Alkizan bizi naiz, Etxabe baserrian, aita eta amarekin. Aitona, amona eta Xugan ere baserri berean bizi dira, baina aurreko aldean. Gaur ostirala da eta eskolatik etxerako bidean noa burua bero-bero dudala. Zergatik demonio denek dakite, eta nik ez, handia naizenean zer izango naizen?

- Arratsalde on maitia! Zer moduz joan da gaurko eguna? galdetu dit aitag etxeko ataritik.
- Aita, nik ez dakit zer izango naizen handia naizenean eta astelehenerako jakin beharra daukat!- erantzun diot oso arduratuta.
- Ai Arane, neuk ere baneki! Tabernan lan egin izan dut, begiralea ere izan nintzen, suhiltzailea izandakoa naiz, irakasle lanetan ere ibilitakoa, eta orain ere, oposaketetarako ikasten ari naiz.

Oposaketak, aitag, lan jakin bat lortzeko, behin eta berriz egiten dituen azterketa batzuk dira. Aibala! Aitag ere ez daki zer izan nahi duen!

- Ai aita! Ez da bada gurea, herentziaz jasotzen diren horietako gaitzen bat izango, ezta?

Aita barrez lehertzen hasi da eta bere barreak nirearekin bat egin du segundo gutxi batzuetan. Lasaigarria izan da.

- Ez kezkatu horregatik Arane. Asteburu osoa horren bila eman behar badugu ere, astelehenerako izango duzu eta erantzunen bat!- esan dit aitak, buruan musu eman didan bitartean.
- Bale! -erantzun diot besarkada estu-estua eman ez, bere laguntza estimatzen dudala konturatu dadin.

Karpeta etxean utzi, merienda hartu eta Xuganekin jolastera joan naiz. Xugan nire lagunik hoberena da. Ez daki hitz egiten. Ez daki kantatzen. Ez daki irakurtzen. Ez daki idazten eta seguruenik ez du jakingo ezta zer izango den handia denean. Baina, belarri fina du, korrikalari aparta da eta beti dago pozik! Nirekin jolastea asko gustatzen zaio, eta jakina!, niri ere berarekin egotea! Amonak dio bikote paregabea osatzen dugula.

Xugan ere ez zen jaio geldi egoteko. Arratsaldero lehian aritzen gara, korrika eta saltari, nor nekatu lehenago. Eta beti- beti- beti, berak irabazten du. Lehertzeko zorian nagoenean keinu bat egiten diot eta belarretan etzaten gara, bata bestearen ondoan, eta orduan, aurpegia miazkatzen dit goitik behera, eta ezin izaten diot barreari eutsi!

-Arane! Etxean naz! -esan du amak gugana hurbilduz.

-Ama!- esatearekin batera, lurretik altxatu naiz eta muxu eman diogu elkarri.

Xuganek salto egin dio amari eta amak hazka egin dio buruan.

-Aitite eta amama, "zoloan" al dauz? -galdetu dit amak.

-Bai, "zoloan" dauz. -erantzun diot, bizkaieraz.

Ez dizuet lehenago kontatu, baina ama bizkaitarra da eta bizkaieraz egiten deust berba. Aita berriz, Nafarra eta batueraz hitz egiten du. Eta nik... ba nik, gipuzkeraz, batueraz, bizkaieraz eta batzuetan erdaraz ere bai.

Ama andereñoa da. Billabonako herri eskolan egiten du lan.

Goizero, elkarrekin ateratzen gara etxetik eskolara joateko. Arratsaldetan berriz, bera ni baino ordu erdi beranduago heltzen da etxera.

Arratsaldero, afal aurretik, egun batzuetan aitarekin eta besteetan amarekin, “eskolako kontuei” tarte ematen diogu. Egongelako mahaian esertzen gara eta eskolan egin duguna kontatzen diet. Ondoren, karpeta begiratzen dugu, gurasoentzako oharrik dagoen ikusteko, eskolara eramateko zerbait bildu behar dudak jakiteko edo zereginen bat egiteko.

“Eskolako kontuak” astegun buru-zurietan egiten ditugu, inoiz ez larunbat edo igandeetan. Asteburukoak, atsedena hartzeko eta norberaren kontuetan aritzeko egunak baitira, gurean behintzat!

Gaurkoan, ez daukat gurasoentzako oharrik, ezta eskolarako materialik bildu eta eraman beharrik. Ez dut idatzizko lanik egiteko ezta ezer errepasatu beharrik ere.

Gaur, nire agendan galdera bakarra agertzen da letra larriz idatzita, hausnartzeko.

2010.eko azaroaren 12a, ostirala.

## -ZER IZANGO NAIZ HANDIA NAIZENEAN?

Amari den dena kontatu diot, eskolan andereñok galdera egin duenean sortu zaidan buruhaustetik hasita, aitaren eta nire gaitzaren deskubrimendua egin dudanera arte.

–Ama! Eta zuk zer pentsetan dozu? Aita eta biok gaixorik gauzela?

–Ba... ez dakizut zer esan! Arrazoia be euki zeinke Arane. Eta halan bada, espero dot neu be ez kontagietea zuen gaixotasun horregaz.

–Beeneeeetaaaan! - esan diot larri aurpegiarekin.

–Burlezahar nabil, Arane! - esan eta barre algaraka hasi da. Eta orduan, aitarekin gertatu zaidan gauza bera gertatu zait amarekin. Barre egin eta lasaitu egin naiz.

–Ez egiozu buelta gehiaurik emon, neu be seguru nau eta astelehenarako erantzune izango dozule!

- Ama. Eta zuk noz jakin zendun zer izango zintzen handie zintzenen?
- Ba... egie esan, neu baino arinau entereu ziren ingurukoak, familia eta lagunartea.
- Bai? Eta zelan ba?
- Zuk badakizu batzuetan nire antiojuen bila zelan ibiltzen nazen zoroaren pare, ezta?
- Bai, badakit. Eta sudur puntan eukiten dozuz ama!
- Ba hori da kontue Arane! Sarritan, errazago ikusten direla inon antiojuek norberanak baino. Onerako eta txarrerako be!
- Aaaaa! Ulertan dot ama! Eta orduan... nork ikusi zaituzan zure antiojuak?
- Ba nire ikaskideek, zure aitite eta amamak, nire aiztiak eta hainbet lagunak be! “Zuk ondiño egunen baten, andereñoa izen biozu ba!” esaten eustien. Asko gustetan jaten inori ikas-lanetan lagundutia eta!
- Ama, badakit zer egingo dodan!
- Zer Arane?
- Aitite eta amamari nire antiojuek ikusi deureizan itaunduko deutsiet. Zer irizten deusezu?
- Ederra ideia! Baine horrek itxaron egin beharko deu bihar arte, berandu da eta. Konforme, maitia?
- Ondo da ama!

Gauean amets egin dut. Betaurrekoak besterik ez nituen ikusten. Gorriak, urdinak, horiak... Handiak, txikiak, ertainak... Antzinakoak, modernoak...

Gaur beste egunetan baino goizago esnatu naiz nire agendako galderari erantzuna bilatuko diodan konbentzimenduz.

Gosaldu eta aitona eta amonarengana joan naiz, ziztu-bizian. Nire gorputza ia-ia oinei ezin jarraitu joan da.

–Amona!, Aitona! ...–

Musu eman diet eta den-dena kontatu diet. Andereñok gelan egindako galderarekin sortu zitzaidan buruhaustetik hasi eta antiojuen kontuarekin bukatu arte.

Biak ere adi-adi egon dira eta bukatu dudanean nire antiojuen berri ematen saiatu dira, baina hori egin baino lehenago, aitonak eta biok hausnartzea zer den adostu behar izan dugu.

Lehenengo ukuilura joan gara, eta bertan, aitonak gure behiak nola hausnartzen duten erakutsi dit. Triparekin hausnartzen dute. Janaria irentsi ondoren, ahora berriro ekarri eta bertan murtxikatzen baitute berriz irentsi baino lehen.

Guk eskolan antzeko zerbait egiten dugula esan diot, baina buruarekin. Eskolan, hausnartzea, kontu bati mila tokitatik begiratzea da. Lehenengo begirada batean alde onak ikustea. Bigarren begiradan, alde txarrak. Hirugarrenean, berriz, denak nahastu eta azken begiradarekin iritzi bat, erantzun bat edo soluzio bat aurkitzea. Eta orduan gustura geratzen zara, aitonaren behiak bezala, tripa bete-betea dutenean.

Goiz osoa eman dut aitona eta amonarenean eta kolore askotako betaurrekoak ikusi arazi dizkirate, gustokoak eta hain gustukoak ez nituenak ere.

Bazkal orduan aita eta amarekin hitz egiten egon naiz, eta eurek ere hainbat betaurreko erakutsi dizkirate, atseginak batzuk eta deserosoak besteak.

Gaueko ametsetan betaurrekoak nire atzetik korrika zebiltzan. Betaurrekoak aurrean, betaurrekoak atzean... eta baita goitik eta behetik ere.

Ilgandean, familiakoen arteko bazkaria antolatu zuen aitak.

Den-denok egon ginan: aitite eta amama, aitona eta amona, izeko, izeba, osaba biak, lehengusu eta lehengusinak, Xugan nire txakur maittea... Eta denei galdera bera egin nien, banan-banan.

Asteburu oparoa izan da. Eta amak arrazoiak zuen, denek baitzekiten nire betaurrekoei buruz nik baino gauza gehiago.

Igande gauean ez nuen ametsik izan, agian, loak hartu aurretik nire betaurreko guztiak ondo hausnartu nituelako.

Eta... astelehen goizean, andereñok, gelan esan zuenean, *eta zu Arane, zer izango zara handia zarenean?* Ni, ez nintzen mutu geratu! Ahoa hitzez beteta nuen. Hainbeste gauza nituen esateko!... hainbeste kontu ikasi nituen neure izaera, zaletasun eta nortasunari buruz!...

- Ba... nik, handia naizenean, betaurrekoak bilatzearekin zerikusia duen lanen bat izango dut, ez gaizki ulertu, ...
- Optikoa izan nahi duzu! - moztu ninduen lkerrek.

Eta jarraian Izarrek galdetu ea optikoa zer zen, eta andereñok erantzun, eta Haizeak, berari ez zaiola lan hori gustatzen, eta Aimarrek, berari baietz, eta Ainhoak, ea zer duten txarra betaurrekoek, bereak oso politak direla...

Konturatu ginenerako jolastokira joateko txirrinak jo zuen. Eta ni, aho bete hitz geratu nintzen!

- Zerbait gehiago esan nahi al zenuen Arane? - galdetu zuen andereñok.
- Bai! Bueno... hobeto ez!- erantzun nion ondo pentsatu ondoren.

Jolas garaia zen eta agian jolastordu osoa eman beharko nuen nahi nuen guztia ondo adierazteko, eta... nik, jolastokira irten nahi nuen, jolastera! Total, aurtan ez bada ere, seguru hurrengo mailan eta hurrengoan eta hurrengoan ere, irakasleek hainbeste maite duten galdera horri erantzuteko aukera izango dudala!

*Zaharrek beti dute zer kontatu, eta gazteok,  
zer ikasi eta zer hobetu! Bitartean,  
ASKO eta ASKOTAN JOLASTU!*



